

NAFARROAKO kirolaren plan estrategikoa



AURKIBIDEA

1.-	AURKEZPENA	3
2.-	SARRERA	5
3.-	ZERTARAKO EGIN DEN PLAN ESTRATEGIKOA	9
4.-	ESKUMEN ESPARRUA	12
5.-	LANERAKO METODOLOGIA	19
6.-	HASIERAKO PLANTEAMENDUA	27
7.-	NAFARROAKO KIROLAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA	35
8.-	XEDEA, IKUSPEGIA, JARDUTEKO PRINTZIPIO OROKORRAK	61
9.-	ARDATZ ESTRATEGIKOAK. GARAPENA	63
10.-	EKINTZEN KOADROA	83
11.-	PLAN ESTRATEGIKOKO MEMORIA EKONOMIKOA KAPITULUKA	101
12.-	PLAN ESTRATEGIKOKO MEMORIA EKONOMIKOA PROGRAMAKA	102
13.-	PLAN ESTRATEGIKOKO LANTALDEETAN PARTE HARTU DUTENAK	104
14.-	BIBLIOGRAFIA	108

1.- AURKEZPENA

Legegintzaldi honen hasieran, zuzentzen dudan Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentutik, konpromisoa hartu nuen hurrengo urteetan kirol arloan garatu beharreko ildo estrategikoetan lan egiteko. Horretarako Nafarroako Kirolaren Plan Estrategikoaren proiektua sortzeari ekin diogu, eta gure helburua izan da kirol sistemaren egitura eta antolamendua bultzatzeko balio izanen duen tresna bat izatea, sistema horren garapenean parte hartu behar duten eragile guztien ekintzak gidatuko dituen etorkizunean.

Gogoan izan behar dugu kirola gure gizartearen funtsezko aktibo bilakatu dela eta, horregatik, Nafarroako Gobernuaren ekintzen lehentasunezko helburu izan behar duela. Gure gizarte errealitateari egokitutako politikak bultzatu behar dira, norabide bakarrean. Kirola, zalantzarik gabe, fenomeno garrantzitsuenetakoa da, pertsonen bizitza molde bat, eragin handia duena bai gizartean eta bai ekonomian ere.

Kirola Nafarroako herritar guztien eskubidetzat hartzea izan behar du norabide horrek, besterik ezin da izan; eta, hori horrela bada, nafar guztiei baldintza egokiak ematen ahalegindu behar dugu eskubide hori berdintasunez erabili ahal izan dezaten, generoa, adina, jatorria edo bestelako inguruabarrak direla-eta bereizkeriarik jasan gabe.

Kirolean arituz garatzen ahal diren balioak Nafarroako biztanle guztiei helaraztea; horixe da, dudarik gabe, helburuetako bat, gizarte osasuntsuagoa lortzen lagunduko duena. Bizi kalitate hobea dakarkigun osasun publikoaren kontzeptua kirolaren fenomenoari lotuta ulertu behar dugu.

Plan estrategiko hau dokumentu irekia da, gauzatu ahala berrikusi eta doitu ahal izanen den agiria, alegia. Irekitasun hori dela medio, itunak eta sinergiak bilatzen ditu Nafarroako Gobernuko departamentuen, toki entitateen eta kirol arloko gainerako eragile nafarren beste plan eta ekintza batzuekin.

Esparru horretan Departamentuak, Nafarroako Kirolaren Institutuaren bitartez, Nafarroako Kirolaren Plan Estrategikoa egin du, Nafarroan kirol arloan ari diren eragile publiko eta pribatuekin elkarlanean. Kirol ereduaren ekintza planak, ardatz estrategikoak eta jarduketa ildoak jaso dira Planean eta tresna egokia izanen da kirol arloko politikaren helburuak lortzeko behar diren neurri, baliabide eta ekintzen multzoa antolatzeko, Nafarroako Kirolari buruzko Foru Legean ezarritakoari jarraituz.

Plan bateratzailea eta adostua da. Testua egiten parte hartu duten erakunde guztien asmoak bertan jaso dira: Nafarroako kirol arloko eragileak, elkarte eta erakundeen ordezkariak, udalak eta kirol mankomunitateak, kirol klubak, kirol federazioak, ikastetxeak, kirol anitzeko klubak, unibertsitateak, kudeaketa enpresak, kirol fundazioak, kirol teknikariak, irakasleak, kirol buruzagiak eta beste batzuk aritu dira lanean. Horrela bete dira administrazioen arteko koordinazioaren printzipioa, erakunde publiko edo pribatuekiko lankidetzarena eta haien partaidetzarena. Printzipio horiek gidatu behar dituzte Nafarroako kirolaren erakunde-antolaketa eta sustapena, Nafarroako Kirolari buruzko uztailaren 5eko 15/2001 Foru Legearen 4. artikulua araberaren arabera.

Laburbilduz, askoren artean plan estrategiko errealista egin nahi izan da eta horren emaitzek legitimatu behar dituzte etorkizuneko jarduketak kirol arloko politikan, kirol jarduera Nafarroako biztanleriaren sektore guztietara hedatzeko helburuarekin.

M^a Isabel García Malo

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria

2.- SARRERA

Orain aurkezten den dokumentu honen azken helburua da aditzera ematea, modu sistematizatuan, Nafarroako Foru Komunitatean hurrengo urteetan kirol arloan burutu nahi diren estrategia eta ekintzen multzoa. Aldez aurretik Nafarroako Komunitateko kirolaren gaur egungo egoaren azterketa egin da programatutako lan arlo guztien ikuspegietatik.

Nafarroako Kirolaren Plan Estrategikoarekin aurkezten diren ekimen hauek Nafarroako Kirol Kontseiluaren baitan eztabaidatu eta onetsi dira, eta horretarako abiapuntu izan dira parte hartu duten lantaldeek aldez aurreko diagnostikoan agerian jarritako mehatxuak eta aukerak, ahuleziak eta indarrak.

Nafarroako Kirolaren Plan Estrategikoa egiten parte hartu eta lagundu dute Nafarroako kirolarekin zerikusia duten eragileetako askok, elkarte eta erakundeen ordezkariak, udalek eta kirol mankomunitateak, kirol klubek, kirol federazioek, ikastetxeek, kirol anitzeko klubek, unibertsitateak, kudeaketa enpresek, kirol fundazioek, kirol teknikariak, irakasleak, kirol buruzagiek eta beste batzuek. Horrela bete dira administrazioen arteko koordinazioaren printzipioa, entitate publiko edo erakundeekiko lankidetzarena eta haien partaidetzarena; parte hartzaile guztien ekarpenak lantaldeetan aztertu eta adostu dira.

Esparru guztietan eta modu desberdinetan, kirol arloko hainbat estamentu eta eragile ordezkatzan dituzten pertsona askok benetan eta aktiboki parte har dezaten lortu da. Pertsona horiek beren iritziak eta ideiak azaldu dituzte hurrengo urteotan Nafarroako kirola nolakoa izatea nahi dugun zehazte aldera. Beren esperientzien berri emanez parte hartu duten pertsonak 200dik gora dira; Nafarroako kirolaren egoera diagnostikatu dute eta hura hobetzea helburu duten ekintzak proposatu dituzte.

Lankide horiei guztiei esker, oso ikuspegi desberdinetatik aztertu da Nafarroako kirola eta askotariko filosofiak hartu dira aintzat kirol jarduera ulertzeko orduan. Halaber, Nafarroan aurkitzen ahal ditugun kirol errealitate desberdinen asmo eta erronkei mesede egin eta irtenbidea emanen dieten jarduketa-estrategiak bilatzen lagundu digute.

Plan hau abian jarri ahal izateko, gure Komunitateko kirol eragileetatik askok eta askok ikusi behar zuten beren burua bertan islatuta. Horiek guztiek, nork bere arloan, egunero egiten duten ahalegina eta lana ezinbestez islatu behar zen, partaidetza gisa, Nafarroako Kirolaren Plan Estrategiko honen diseinuan.

Aurrekoarekin loturik, Nafarroan kirola garatzeko diseinatu diren dokumentua eta estrategia direla medio, herritar bakoitzak bere kirol ibilbidea urratzeko aukera izan behar du ahalik eta bermerik osoenekin.

Orain aurkezten den agiriaren egiturak Nafarroako Kirolaren Plan Estrategiko hau egin beharraren azterketa eta justifikazioa garatzen ditu.

Gaurko gizartean kirola garrantzi handia hartzen ari da eta kirol gertakari nagusien emanaldiak dira telesaiorik ikusienak. Hori dela-eta pertsonak gero eta gehiago egiten dute bat klub eta kirolari kualifikatuenekin. Nafarroa, dituen zenbait parametreri esker, ongi kokaturik dago estatu osoko kirol jardueraren indizeetan. Egoneko bizimodua eta gizentasuna gure garaiko mehatxuak dira; biztanle guztiei eragiten diete eta bereziki haurrei. Gaitz horiei aurka egin behar zaie, bizi kalitatea hobetzen lagunduko duten bizi ohitura osasuntsuak hartuz. Besteak beste arrazoi horiexek aipatzen dira 3. kapituluan plan estrategiko hau egin beharra justifikatzeko.

Kirol arloan Nafarroan ezarrita dauden eta garatzen diren eskumenen berri ematen da 4. kapituluan. Kirolari buruzko urriaren 15eko 10/1990 Legeak eta bereziki Nafarroako Kirolari buruzko uztailaren 5eko 15/2001 Foru Legeak kirola arautzen eta antolatzen dute, bakoitzak bere eskumeneko eremuan.

Aurrerago, 5. kapituluan, Plan Estrategikoa egiteko erabilitako metodologia azaltzen saiatu gara. Nafarroako kirol kontuekin zerikusia duten eragileetatik ahalik eta gehienen parte hartze aktiboa izan da metodologiaren oinarri nagusia.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak plan estrategiko honen bidez garatu nahi dituen ildo nagusiak azaltzen ditugu 6. kapituluan. Nafarroako Kirolaren Institutuko teknikariek batera eztabaidatu eta gero, Nafarroarentzat proposatzen den kirol ereduaren Xedea, Ikuspegia eta Printzipio orokorrak zehaztu ziren.

Bestalde, 7. kapituluan Nafarroako kirolaren egungo egoera diagnostikatzeko saioa egin da, gure Komunitatean kirolaren garapenean esku hartzen duten eragileek ikuspuntuetatik. Lehendabizi, aurreko kapituluan jasorik dagoen bezala, lan egiteko ardatz estrategikoak zehaztu ziren, eta ondoren arloen garapenean parte hartu nahi zuten pertsona talde handiak osatu ziren. Lantalde horietan Nafarroako Kirolaren Institutuko ordezkariak koordinatzaile aritu ziren eta, halaber, berriaz gonbidatutako adituek beren ekarpenak egin zituzten.

Hauek izan ziren lan arloak:

- Eskola kirola.
- Osasunerako kirola (lehiaketa eta josteta).
- Lehiaketazko kirola.
- Azpiegiturak.
- Prestakuntza eta ikerketa.

Nafarroako Gobernuan kirol, hezkuntza, osasun eta ingurumen gaiekin zerikusia duten departamentuek parte hartzea, bai bakarka eta bai elkarrekin koordinaturik, funtsezko eta ezinbesteko baldintza da plan estrategiko honetan proposatzen diren neurriak bete ahal izateko.

Diagnostikoa egiterakoan AMIA izeneko teknika erabili zen (ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak). Parte hartzaile bakoitzak bere kirol ereduaren ikuspuntutik azaldu eta argudiatu ahal izan zuen Nafarroako kirolaren zein alderditan sakondu behar genuen bai jarduketa ildo berriak ezartzeko, bai Nafarroako kirolaren alderdi onak indartu eta finkatzeko.

Plan estrategiko honen Ikuspegia eta Xedea zehazten dira 8. eta 9. kapituluetan. Bestalde, lantaldeek proposatu behar dizkiguten ekintza planak garatzeko euskarri gisa erabiliko ditugun ardatz estrategikoak eta ildo estrategikoak ere zehazten dira.

Geroago, 10. kapituluan, Nafarroan zer nolako kirola nahi dugun zehaztutakoan gure asmo guztiak helbururaino eramateko beharrezkoak izanen ditugun jarduketak zehazten dira. Lantalde guztiek, bakoitzak bere alorretik, ekintzak proposatu dituzte Nafarroako kirolak dituen ahuleziak gainditzeko eta indarrak baliatzeko. Nafarroako kirol arloko arduradunek ekintza horiek guztiak aztertu dituzte eta, ikuspuntu teknikoago eta, noski, ekonomikoago batetik, ekintza horien lehentasun ordena eta epeak ezarri. Horrekin batera, hurrengo urteetan ekintzok burutzeko ardura nork izanen duen zehaztu dute.

Amaitzeko, 11. eta 12. kapituluetan memoria ekonomikoa jaso da, hori beharrezkoa izanen baita garatu behar diren neurri, ekintza eta programak abian jartzeko eta burutzeko.

Azkenik, 13. eta 14. kapituluetan adierazten dugu nortzuk aritu diren Plan Estrategikoan parte hartutako lantaldeetan, eta hura egiteko prozesuan gehien erabilitako bibliografiaren eta web orrialdeen zerrenda ematen dugu.

Aipatzekoa da, halaber, web orrialdean aurkitzen ahal direla erabilitako dokumentu guztiak, baita Plan Estrategikoari dagozkion material erabilgarri guztiak ere.

Plan Estrategikoa zehazteko prozesu osoan, fase desberdinetan sortutako informazioak trukatu izan dira web orrialde horren bitartez. Baliabide eraginkorra izan da harremanak izateko parte hartzaile guztiekin, baita zuzenean esku hartu ez duten pertsonekin ere, horiek prozesuan parte hartu edo berari buruzko informazioa jaso nahi izan dutenean.

3.- ZERTARAKO EGIN DEN PLAN ESTRATEGIKOA

Nafarroako Kirolaren III. Biltzarra egin zen 2007ko apirilean, eta Javier Lasunción txostengileak esan zuen Administrazioaren eginbearra dela “aldaketa gidatu eta bultzatzea Nafarroako Kirolaren Plan Estrategiko batek markatu behar dituen helburuei begira, egoeraren azterketa orokorra egin ondoren”.

Agian inork ez zion erronka horri antzeman hitzaldiaren testuinguru orokorraren barnean, baina, gure ustez, garrantzi handiagoa hartu zuen Biltzarra bukatutakoan, ikusi zenean eragile askok esku hartzen zutela Nafarroako kirolean, egindako hitzaldi eta komunikazio ugariak lekuko, eta beharrezkoa zela denen arteko koordinazioa hobetzea.

Nafarroan kirolak eta gorputz jarduerak duten garrantzia argi azaldu zen García Ferrandok 2005ean espainiarren kirol ohiturei buruz egin zuen inkestan. Foru Komunitateak izan zituen Estatuko indizerik handienak bai kirol jardueran zein kirol elkarten arloan. Azterlan berak erakutsi zuenez, ordea, 2000. urtean lortutako parte hartze indizeek behera egin zuten 2005. urtean, eta horrek zer pentsatu ematen du.

Gure goi mailako kirolarien lorpenak ere nabarmenak izan dira, eta erreferentzia ezin hobea ezartzen diete gazteei. Miguel Indurain, Mateo Garralda, Iñaki Ochoa de Olza zena eta beste batzuk Nafarroako kirolaren erreferenteak dira.

Alabaina, gaur egun halako atzerakada bat nabari da eremu horretan. Nafarroan jada falta dira hedabideetan hainbesteko ospea duten kirolari horiek, txikienen ispilu, eguneroko lanean adorea eman eta bidea erakusten dieten horietakoak. Inguruabar hori aztertu beharra dago, eta gai izan behar dugu egoera honi buelta emateko beste eragin-eredu batzuen bitartez, biztanleek, oro har, eta eskola umeez, bereziki, kirolean aritzeko motibazioa izan dezaten.

Plan estrategiko honen diseinuak pentsarazi behar digu zein den abiapuntua eta nolakoak nahi ditugun gorputz jarduerara eta kirola Nafarroan etorkizun hurbilean. Nafarroako kirolean parte hartzen duten kirol eragile guztien artean “politika” bateratua egiten bada eta Administrazioak markatutako ildo estrategikoei jarraitzen bazaie, aurrera egiten segitu ahal izanen dugu kirol jardueraren garapenean.

Nahiz eta kirol jardueretan parte hartzen duten biztanleen indize absolutuak goraka joan, oraindik ere badira oso indize apaleko taldeak: emakumezkoak, etorkinak, nerabeak. Egoneko ohiturek gero eta tarte handiagoa kentzen diote gorputz eta kirol jarduerari; ondorioz gero eta ohikoagoak dira gehiegizko pisua eta obesitatea. Egia da emakumezkoak eta hirugarren adinekoak bezalako sektoreak gorputz jarduerara hurbilduz doazela. Kirol jardueraren beste eredu batzuk ere agertzen ari dira. Denentzako aukerak dituzte eta gizarteak estimatzen dituen bizimolde osasuntsuak sortzea ahalbidetzen dute.

Bestalde, biztanleriaren sektore horiek gure Komunitateko kirol bizitzan sartzeak batetik, eta kirolak sektore behartsuenetan bai ikuspuntu soziosanitariotik bai gizarteratzearen ikuspuntutik eragiten dituen onura handiek, bestetik, hurrengo urteetarako jarduketa ildoak markatu behar dizkigute. Ezin dugu ahaztu plan estrategiko honek kirol jarduerara bermatu behar diela biztanle talde guztiei, eta, bereziki, kirolean aritzea zail duten horiei (zaharrak, etorkinak eta emakumezkoak).

EGITEN DUZU KIROLIK?						
		Kirol mota bat	Bat baino gehiago	Bat ere ez	E.E.	GUZTIRA
(kop.)		(1838)	(1180)	(5134)	(16)	(8170)
Melilla	%	34.0	19.1	44.7	2.1	100.0
Errioxa	%	27.2	19.0	53.4	0.4	100.0
Nafarroa	%	21.6	22.9	55.5	.	100.0
Madril	%	24.3	18.6	56.7	0.4	100.0
Ceuta	%	24.5	17.0	58.5		100.0
Katalunia	%	25.4	17.6	56.8	0.2	100.0
Murtzia	%	19.9	14.1	66.0	.	100.0
Euskadi	%	22.9	16.6	60.6	.	100.0
Asturias	%	26.6	11.8	61.6	.	100.0
Kanariak	%	24.6	10.0	65.3	0.2	100.0
Valentziako E.	%	20.2	15.3	64.4	0.0	100.0
Andaluzia	%	21.1	11.3	67.3	0.3	100.0
Gaztela eta León	%	20.5	13.6	65.5	0.5	100.0
ESTATUKO BATEZ. B.	%	22.5	14.4	62.8	0.2	100.0
Balearrak	%	23.8	13.3	62.9	.	100.0
Galizia	%	21.0	12.3	66.5	0.2	100.0
Aragoi	%	25.3	10.5	63.9	0.3	100.0
Gaztela-Mantxa	%	18.6	11.2	70.2		100.0
Kantabria	%	21.4	11.0	67.6	.	100.0
Extremadura	%	17.9	11.1	70.9	.	100.0

Espainiarren kirol ohiturei buruzko inkestaren laburpena. Inkesta hori Ikerketa Soziologikoen Zentroak egin zuen 2005ean, Kirol Kontseilu Gorenaren babespean eta Manuel García Ferrandok zuzenduta.

Kirol jarduerak, pertsona bakoitzaren osasunean eta ongizatean ez ezik, gizarte osoan ere onura handiak sortzen ditu. Nafarroak bere kirol ereduaren beharra du onura horiek lortzeko. Pertsona “aktiboek”, alegia, kirola egiten dutenek, osasun arloko gastu txikiagoak eragiten dituzte egoneko bizimodua dutenek baino. Izan ere, kirolak gorputzari mesede egiten dio (murriztu egiten ditu gaixotasunen arrisku faktoreak, bihotzeko gaitzak, diabetesa, asma, obesitatea, bularreko minbizia) eta adimen osasunari ere bai (depresioa, estresa etab.). Horiek guztiak pertsonen bizi kalitatea hobetzen laguntzen duten hain alderdi garrantzitsuak izanik, ez da komeni kirola noraezean uztea, modaren mende edo unean uneko ekintza inprobisatuen kargura.

Nafarroa lurralde pribilegiatua da bere kokaeragatik eta ingurune geografikoagatik. Hori horrela, ingurumenean ditugun indarrak baliatu behar ditugu, halaber, kirol turismoarekin lotutako politika garatzeko, gorputz eta kirol jardueraren eskaintza handitu eta jarduera bera areagotzeko bitarteko gisa. Horrela gure Komunitateak baliabide ekonomikoak eskuratuko ditu aberastasuna sortuko duten turismo programen bidez, eta Nafarroak erkidego garatu baten itxura emanen du kanpoan.

Kirolaren Plan Estrategikoak, beraz, oinarrizko jarduketa esparrua izan nahi du Nafarroako kirol kontuetan esku hartzen duten eragile guztien koordinazio eta partaidetzarako eta haien jarduna bideratzeko, finkatuta dauden erronka eta helburuak bete daitezen.

4.- ESKUMEN ESPARRUA

Nafarroako Kirolaren Plan Estrategikoa deritzon lan honen xedea nola gauzatuko den zehatz azaltzeari ekin baino lehen, beharrezkoa da gogoeta egitea, zer nolako ekintza eremuan arituko garen hausnartuz.

Kirolaren Europako Gutuna analisi eta azterketarako dokumentu bikaina da, kontuan hartu beharreko erreferentzia kirolari buruz egin nahi den edozein plan estrategiko prestatzeko. Non aurki liteke erreferentzia hoberik? Europar Batasuneko herrialde guztiek landu eta onetsi dute dokumentu hori eta bertan konpromisoa hartu dute kirolaren alde lan egiteko, Gutunean azaltzen diren baldintza eta jarduketei loturik.

Kirolaren Europako Gutunean kirolaz ematen den definizioa argitalpen anitzetan jaso da. Gero eta indar handiagoa hartzen ari da, hainbestearainokoa non Nafarroako Kirolari buruzko uztailaren 5eko 15/2001 Foru Legeak berak jaso baitu.

Honela definitzen du kirola: **”helburu gisa antolaturiko edo beste nolabaiteko parte hartzearen bitartez egoera fisiko eta psikikoaren adierazpide edo hobekuntza, harreman sozialen garapena edo maila guztietako lehiaketetan emaitzak lortzea daukaten jarduera fisikoak”**. (Kirolaren Europako Gutuna, 2.1. a artikulua, 1992)

Definizio horretatik kirolaren hiru bereizgarri nabarmentzen ahal ditugu:

1. Kirola gorputz jarduera da.
2. Antolatua edo antolatu gabea izan daiteke.
3. Lau helburu ditu:
 - Egoera fisikoaren hobekuntza.
 - Egoera psikikoaren hobekuntza.
 - Gizarteko harremanak.
 - Kirol errendimendua.

Horregatik, gaur egun kirolera hurbiltzen garenean izenondoen sorta amaigabea aurkitzen dugu. Batzuetan nahasgarriak izan daitezke, kirolak dituen “alderdi desberdinak” izendatzen dituztela ulertu ezean (guztientzako kirola, oinarrizko kirola, eskola adineko kirola, eskola kirola, unibertsitate kirola, kirol federatua, herri kirola, eliteko kirola, udal kirola, kirol profesionala, ikuskizun kirola, ingurumen kirola, gizarte kirola, kirol alternatiboa, ezgaitasuna dutenentzako kirola, etab.).

Azken batean, kirolaren alderdi, ikuspegi eta ulerkera horiek bultzatzen gaituzte, dudarik gabe, hezkuntza, gizarte, higie, josteta, ekonomia, enpresa eta turismo alorretako interes kualitatiboak eta kuantitatiboak bateragarri egitera hainbat eremutan (autonomia erkidegoak, eskualdeak, udalerrriak, eskolak, klubak etab.) lortu diren HELBURUEKIN. Kirola sustatu eta sendotzeko lanean ardurak dituzten guztiek haien arteko lehentasunak ezarri behar dituzte kasu bakoitzean aldarrikatu, hautatu edo desiratzen den alderdi edo ikuspegiaren arabera. (José Díaz García esana Sevillako Kirolaren Plan Estrategikoaren aurkezpenean)

1978ko Espainiako Konstituzioak kirola antolamendu juridikoari eratziki zion eta goreneko arau maila eman zion.

Konstituzioak, bada, politika sozial eta ekonomikoa gidatzen duten printzipioen barrenean, ezartzen du “botere publikoek osasunari eta kirolari buruzko heziketa bultzatuko dutela”. Halaber, aisia behar bezala erabiltzea erraztuko dute. Konstituzioaren aginduz, printzipio hori erabilgarri bihurtu behar dute botere publikoek, bakoitzak bere esparruan.

Konstituzioaren xedapen hori Kirolari buruzko urriaren 15eko 10/1990 Legean jaso zen. Lege horrek indarrean dirau 18 urte geroago.

Kirolari buruzko Lege Nazionalak atariko hitzetan dioenez, “kirola, bere adierazpide ugari eta askotarikoekin, gaurko gizarte jarduera errotuenen, jendea erakarri eta mugiarazteko ahalmen handiena dutenen artean kokatu da. Kirola hezkuntza sistemaren funtsezko elementua da. Kirolean aritzea garrantzitsua da osasunari eusteko eta, beraz, kirola gizarteko desorekak zuzentzen dituen faktorea da, herritarren arteko berdintasuna garatzen laguntzen du, gizarteratzea errazten duten ohiturak sortzen ditu eta, halaber, taldeko kirolean aritzeak elkartasuna sustatzen du. Horregatik guztiagatik, kirola gaur egungo gizartean elementu erabakigarria da bizi kalitaterako eta aisialdia modu aktibo eta parte hartzailean erabiltzeko”.

“Kirolaren gaineko eskumenak eta kirola sustatzekoak berariaz esleituta daude autonomia estatutuetan eta, hortaz, lege hau ez da saiaturiko berari ez dagozkion birbanaketak egiten. Baina hori bezain egia da, batetik, esleipen hori hertsiki lotu behar dela kasuan kasuko autonomia erkidegoaren lurralde eremuarekin eta, bigarrenik, kirolaren gaian (Konstituzioko terminoak erabiltzearen) hainbat eskumen-tituluk dutela eragina, zalantzarik gabe. Ildo horretan, hainbat dira Estatuako Administrazioaren eta autonomia erkidegoetako administrazioen arteko jarduketa koordinatuak eta lankidetzakoak, batera dituzten eskumenetarako. Horiek, dudarik gabe, kirol politika dinamikoagoa ahalbidetuko dute, eragin biderkatzailea izanen duena”.

“Lehenbizikoari dagokionez, argi ageri da kirolak berezkoa duen estatu mailako eta nazioarteko lehiak Estatuaren jarduketa justifikatzen duela. Konstituzio Auzitegiak behin baieztatu zuenez, autonomia erkidegoen interesen kudeaketak ez du inola ere zilegi egiten Espainiako kirol federatuak, oro har, bereak dituen interesen afektazioa. Hortaz, behar-beharrezkoa da esku-hartze publikoa kirola garatzen den eremuarekin lotzea. Horrek, azken batean, bide ematen du Estatuaren eta autonomia erkidegoen jarduketa eremuen arteko mugak jartzeko”.

“Eta jakin badakigu hezkuntzaren, ikerketaren, osasunaren edo merkataritzako legeriaren arloetako eskumen-tituluek Estatuaren jarduketa bermatzen dutela gai honetan, autonomia erkidegoaz gaindiko alderdian. Hori guztia, erabateko begirunez hartuta autonomia erkidegoek autonomia estatutuetan bereganatu dituzten eskumenak. Horiek erabiliz, zenbait lurraldetan, kirol arloko legeria berekia aldarrikatu da esparru horretan”.

Nafarroako Kirolari buruzko uztailaren 5eko 15/2001 Foru Legeak dioenez, Nafarroako Foru Komunitateak eskumen osoak ditu kirola sustatu eta aisia behar bezala erabiltzeko gaitan, halaxe agintzen baitu Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoko 44.14 artikulua.

Nafarroako Kirolari buruzko Foru Legearen zioen azalpenean honakoa adierazten da: “Foru lege honen funtsezko xedeetako bat da kirola Nafarroako herritar ororen eskubidetzat hartzea, alegia, herritar guztiek dutela eskubidea kirola ezagutu eta horretan aritzeko, libre eta nor bere borondatez, berdintasunean oinarrituta eta sexuak, adinak edo bestelako inguruabarrek bazterkeriarako arrazoia izan gabe; ezgaituak gizartean integartzeko garrantzizko bidea dela baloratuta eta gure Foru Komunitateko ingurumenarekiko begirunea sustatzen”.

Kirolaren gaineko eskumenen esparruan aurrera eginda, Nafarroako Kirolari buruzko Foru Legean aurkituko ditugu administrazio bakoitzak kirolaren arloan dituen eskumenak. Nafarroako Kirolaren Plan Estrategiko honi dagokionez, Nafarroako Gobernuaren eskumenak eta horren barnean kirola kudeatzen duen organoarenak aipatuko ditugu.

Nafarroako Kirolari buruzko Legeak kirol gaietan ondoko eskumenak ematen dizkio Nafarroako Gobernuari:


- a) Foru Komunitateko Administrazioaren kirol politikaren lerro nagusiak ezartzea.
- b) Foru Komunitatean egiten diren kirol jarduerak definitu eta antolatzea, beti gizartearen premien arabera izan daitezen, gure ordenamendu juridikoaren beste ataletako arau-aldaketan arabera eta jarduera horietako osagai guztien benetako eskaeren arabera.
- c) Nafarroako kirol erakundeen eta Nafarroako Kirol Erakundeen Erregistroaren araubide orokorra onestea.
- d) Nafarroan goi mailako kirola arautzea, foru lege honek agintzen duenari begira.
- e) Kirol gaietako zehapen eta diziplina araubidea arautzea kirol modalitateen berezitasunen arabera.
- f) Jendaurreko kirol ikuskizunen eta jardueren araubide orokorra arautzea.
- g) Erabakitzea zer baldintza bete behar dituzten Foru Komunitateko erabilera publikoko kirol instalazioek, publikoak nahiz pribatuak, egokiak izateko, eta kirol instalazioetan segurtasun arauak hertsiki betetzen diren kontrolatzea, Foru Administrazioako beste erakundeen eta toki entitateen eskumenen kalterik gabe.
- h) Kirol teknikarien prestakuntza garatu eta arautzea.
- i) Foru Komunitateko kirol sariak eratu eta arautzea.
- j) Foru lege honek edo gainerako ordenamendu juridikoak egozten dizkion beste guztiak.

Era berean, Nafarroako Kirolari buruzko Foru Legean bertan, Foru Komunitateko Kirol Administrazioaren eskumenak zehazten dira; gaur egun Nafarroako Kirolaren Institutuari dagozkio. Hauek dira eskumenak:

- a) Nafarroako kirol erakundeen Erregistroa kudeatzea.
- b) Baimena ematea Nafarroako kirol federazioak eratu eta haien estatutu eta erregelamenduak onets daitezen.
- c) Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean dauden kirol modalitateei eta espezialitateei aitormena ematea.
- d) Begiratzea kirolaren arloko arauk ezartzen dituzten baldintzak bete daitezen elkarteei eta beste erakundeei aitormena eman ahal izateko, foru lege honek agintzen duenari begira.
- e) Eginkizun publikoak betetzen ari direnean Nafarroako kirol federazioak koordinatu eta begiratzea eta, hala behartzen bada, Nafarroako beste kirol erakunde batzuk ere bai haien jarduera pribatua ezertan eragotzi gabe.
- f) Nafarroako lehiaketa ofizialen antolamendua arautu, sailkatu eta gainbegiratzea.

- g) Nahitaezko eskolaren adinekoren Nafarroako kirol lehiaketa ofizialak antolatzea eta antolatzeke baimena ematea.
- h) Foru Komunitateko unibertitateen arteko kirol jarduerak sustatu eta koordinatzea.
- i) Nafarroako kirol federazioen bidez eta hala bide denean Nafarroako beste kirol erakundeen bidez, Nafarroako selekzioak osatzen dituzten kirolariak izendatzea.
- j) Nafarroako lehiaketa ofizialen eta Nafarroako selekzioen sinbolo eta ikur bereizgarriak onestea.
- k) Nafarroako goi mailako kirolariak kalifikatzea.
- l) Nafarroako goi mailako kirola gainbegiratu eta begiratzea, foru lege honek agintzen duenari begira.
- m) Kirolaren arloko dopajea galarazi eta kontrolatzea, kirol federazioak, Estatuko Administrazioa eta hala bide denean beste erakunde publiko eta pribatuak lagun.
- n) Ohiz gainekotzat jotako jendaurreko ikuskizun eta jarduerentzako baimena ematea.
- o) Kirol gaietako ikerketa zientifikoa eta kirolarien kontrol medikoa eta osasun kondizioen hobekuntza bultzatzea.
- p) Kirola laguntzak eta diru-laguntzak emanaz sustatzea.
- q) Kirol jarduerak interes sozialekotzat deklaratzeko tokatzen diren zerga kenkariei begira.
- r) Esleitu zaizkien kirol instalazio eta zentroak antolatu eta kudeatzea, eta bai haietan egiten diren inbertsioak ere.
- s) Kirol instalazioetarako plan zuzentzaileak idatzi eta kudeatzea.
- t) Nafarroako kirol instalazioen errolda kudeatzea.
- u) Kirol gaietako zehapen eta diziiplina ahalmena erabiltzea, foru lege honetan eta haren garabideko xedapenekin bat.
- v) Nafarroako Kirol Justiziako Batzordearen kideak izendatzea.
- w) Foru lege honen hirugarren artikuluan jasotzen diren helburuak iristen eta gauzatzen laguntzen duten berariazko programak onetsi eta betearaztea.
- x) Foru lege honek eta haren garabideko xedapenek egozten dizkioten beste guztiak.

NAFARROAKO KIROLAREN INSTITUTUAREN ORGANIGRAMA



** Organigrama egiterakoan estamentu bakoitzaren zuzeneko mendekotasuna hartu da kontuan eta ez bakoitzari legokiokeen maila administratiboa.

5.- LANERAKO METODOLOGIA

Nafarroako Kirolaren Institutuak Plan Estrategikoa egiteko prozesuko lehentasunetako bat izan du, hasiera-hasieratik, ahalik eta parte hartzaile aktibo gehien biltzea Nafarroako kirolarekin zerikusia duten pertsonen, kolektiboen, kirolen, eragileen eta abarren artean.

Bada, horrelako parte hartzea izan da, izan ere, eta osatu den Plan Estrategikoa Nafarroako kirolaren inguruan ari diren gehien-gehien nahiak eta iritziak biltzen ditu. Horrek areagotu egiten ditu Plan Estrategikoaren kalitatea eta egokitasuna.

Parte hartze hori lortzearen, eta, gainera, prozesua bizkortasun eta eraginkortasunez garatzeko, partaidetza ireki eta antolatuan oinarritutako metodologia erabili da. Jakintza arlo anitzeko lantaldeek askotariko gaiak eta informazioak landu dituzte.

Horrelako ezaugarriak dituen proiektu bati ekiteko metodologia hauek erabili dira: **lantaldeak eta bileren teknika**.

Bi metodologia horiek aldi berean aplikatuta lan erritmo eta emaitza bikainak bermatzen dituzte, bai epeei dagokienez eta bai, bereziki, azken emaitzen kalitateari begira.

Lantaldeak.

Metodologia honen indarra hainbat pertsonaren parte hartze antolatuan datza zuzenean. Parte hartzaile guztiek helburu berari begira lan egiten dute, denek antzeko kezka eta asmo berberak dituzte.

Lantaldeen funtzionamendu egokirako, haietako bakoitza era honetara antolatu da:

- Taldeak badu koordinatzaile edo zuzendari bat, eginkizun nagusi hauek betetzen dituen:

- Taldeak modu egokian lan egiten duela ziurtatzea.
- Taldearen lana helburuetarantz modu egokian bideratzen dela ziurtatzea.
- Egin beharreko lana eta lortu beharreko helburuak taldeari jakinaraztea.
- Lan bileren emaitzak taldeko kideei jakinaraztea.
- Taldearen lanean azaltzen ahal diren gatazkak ebaztea.
- Taldeak lan egiteko behar duen informazioa lortzea eta taldeari ematea.
- Lantaldean parte hartu eta bere ekarpena egitea gainerako kideek bezala.

- Talde bakoitzak bere lan egutegia du. Bertan zehatz-mehatz ezarrita daude bai egunak eta bai egun bakoitzeko zereginak. Egutegian ageri dira egin beharreko bilerak eta horien egunak.


- Argi zehaztu da zer helburu lortu behar dituen talde bakoitzak eta helburuok neurgarriak dira erabat. Beraz, jakin daiteke helburuak lortu diren ala ez, eta zenbateraino lortu diren.

- Informaziorako, komunikaziorako eta parte hartzeko sistema guztiz zehatz eta eraginkorra ezarri da, behar diren informazio trukeak bermatzen dituen, bai talde bakoitzaren barnekoak, bai taldeen artekoak, bai eta taldeen eta proiektuko zuzendaritza taldeen artekoak ere.

Ondokoak dira proiektuan parte hartu duten lantaldeak:

- Zuzendaritza taldea. Hydra Gestión enpresako langileek eta Nafarroako Kirolaren Institutuak izendatutako kideek osatu dute. Talde honek zuzendu eta koordinatu egin ditu proiektua egiteko lanaren alderdi guztiak (beste talde batzuen koordinazioa, erabakiak hartzea, dokumentuak idaztea, eman beharreko informazioa prestatzea, etab.).
- Aditu taldea (barneko eta kanpoko adituak). Kirolarekin zerikusia duten jakintza-eremuetako adituek osatu dute. Haien eginkizuna izan da lantaldeetan sartzea eta aztertzen ari ziren gai eta egoerei buruz beren jakintza zabalagoa eskaintzea.
- Batzordeak. Proiektuan berariaz zehaztutako lantaldeek osatu dituzte. Haien xedea izan da ekintzarako proposamen zehatzak egitea (ekintza planak), batzorde bakoitzaren aztergaiei aplikatu beharreko helburu estrategikoak bete zitezten.
- Beste batzuk. Web orrialdean egindako ekarpenen bitartez Plan Estrategikoa osatzeko lanean parte hartu duten pertsonak dira.

Aurrean azaldutako funtzionamendu-eskema beheko irudian ageri da.



Egitura horretan Hydra Gestión enpresako langileek egin dute Bideratzaile lana. Figura horren eginkizun nagusia izan da zubiarena egitea zuzendaritza taldearen eta lantalde bakoitzaren artean. Bideratzaileak eman dio eskatutako informazioa lantalde bakoitzari, funtzionamendua gainbegiratu du eta zuzendaritza taldea informatu du.


Zuzendaritza taldea: talde bakoitzak proposaturiko konponbideak aztertu ondoren erabakia hartu eta justifikatu eta taldeari jakinaraztea izan da haren lana.


Bileren teknika.

Teknika hau erabiltzen denean eraginkortasuna eta eragimena bermaturik daude lantaldeen bileretan eta, oro har, proiektuko bilera guztietan; hau da, bilerak aurrez ezarritako ildoetara jarraituz egiten dira eta, gainera, bilera bakoitzetik espero diren emaitzak (helburuak) lortzen dira.

PROIEKTUAREN FASEAK

Plan Estrategikoa egiteko lana zenbait fasetan zatitu da. Jarraian horien plangintza ageri da.





Hona hemen fase bakoitzeko ekintzen azalpena eta parte hartzaileen zerrenda:

AURRETIAZKO FASEA

Aurretiazko fase honen helburu nagusia izan da Kirolaren Plan Estrategikoa egiteko proiektua aurrerantzean arautzeko jarduketa esparrua ezartzea.

PARTE HARTZAILEAK

- Nafarroako Gobernuko Nafarroako Kirolaren Institutuko kideak.
- Hydra Gestión enpresak proiektua egiteko izendatutako taldea.

ERAKUNDEEN JARRERA-HARTZEA

Fase honen xedea izan da Nafarroako Kirolaren Institutuak adierazpen estrategikoak egitea Nafarroako kirolari buruz; hots, Nafarroako Kirolaren Institutuak ondokoak definitu ditu:

- Xedea.
- Ikuspegia.
- Balioak.

Adierazpen estrategiko horiek proiektuarentzat funtsezkoak dira, Nafarroako Kirolaren Institutuaren izateko arrazoia argitzen dutelako (xedea) eta Kirolaren Institutuaren jarrera eta helburuak zehazten dituztelako, Plan Estrategikoa egin eta gauzatu ondorengo aldirako (ikuspegia).

PARTE HARTZAILEAK

- Nafarroako Gobernuko Nafarroako Kirolaren Institutua
- Hydra Gestión enpresako zuzendaritza taldea.

Planaren garapen osoari ekin ahal izateko lehenbiziko fase honetan garrantzi berezia izan du Nafarroako Kirolaren Institutuko gobernu organoen parte hartzeak.

AMIA ETA ZAEB AZTERKETAK

Fase honen xedea izan da Nafarroako kirolaren kokapena identifikatu eta ebaluatzea etorkizuneko helburuei begira (horiek xedearen bidez zehaztu dira), eta, bestetik, Plan Estrategikoaren garapenean landu behar ziren ardatz estrategikoak zehazten lagunduko zuten jarduketa-estrategiak ezartzea.

PARTE HARTZAILEAK

Proiektuko zuzendaritza taldea

Barneko aditu taldea.

Kanpoko aditu taldea

Prozesu honi jarraitu zaio:

- Ahulezien azterketa.
- Mehatxuen azterketa.
- Indarren azterketa.
- Aukeren azterketa.

- Jarduteko estrategiak eta horien izaera (eraso-estrategia, defentsa-estrategia etab.) zehaztea, aldez aurretik egin den AMIA azterketatik ateratako gai jakinei dagokienez.

Ardatz estrategiko bakoitzerako sortutako lantaldeak aurkitzen ahal ditugu agiri honen 19. puntuan, baita talde horietako kideak ere. Parte hartu duten pertsonak bakarrik ageri dira tauletan. Pertsona batzuek, gonbita jaso arren, parte hartzeari uko egin diote askotariko arrazoiengatik, eta horiek ez dira ageri.

ARDATZ ETA HELBURU ESTRATEGIKOAK

AMIA eta ZAEB azterketetan lortutako emaitzak eta mapak oinarri harturik, prozesuko hurrengo urratsa izan da jarduketa ardatz estrategikoak eta dagozkien helburu estrategikoak zehaztea.

Helburu estrategikoen eta ardatz estrategikoen garapen bateratu eta sinkronizatuak bidea ematen du kirolaren azken garapen helburua lortzeko, xedearen bitartez definitu den hori, hain zuzen ere.

- Nafarroako kirolaren garapenari eutsi behar dioten ardatz estrategikoak zehaztea, Kirolaren Plan Estrategikoak ardatz horiek jorratu behar baititu.
- Lortu nahi diren helburu estrategiko zehatz eta neurgarriak ezartzea ardatz estrategiko bakoitzerako. Gerora Plan Estrategikoan ezarriko diren ekintzek lagundu behar dute helburu estrategiko bakoitza betetzen eta, horrenbestez, ardatz estrategikoetan aurrera egiten.

PARTE HARTZAILEAK

- Proiektuko zuzendaritza taldea.
- Nafarroako Kirolaren Institutua.

PARTE HARTZEZKO GARAPENA

Zenbait lantalde bildu dira aurreko fasean zehaztutako ardatz estrategikoen inguruan. Lantalde bakoitza, 15 bat lagun, helburu estrategikoak garatzea ahalbidetuko duten jarduketan proposamenak egiten aritu da. Prozesu osoan zerikusia izan duten sektoreetako boluntarioek eta zuzendaritza taldeak gonbidatutako pertsonak osatu dituzte taldeak. Gehienbat, jorratu behar ziren lan arloetako ordezkariak izan dira. Prozesuan, guztira, 150 pertsona inguruk parte hartzea zegoen aurreikusita.

Behar-beharrezkoa eta ezinbestekoa izan da proiektuarekin zerikusia duten sektoreek parte hartzea ezarritako ardatz guztietan, Plan Estrategikoa kudeatzeko tresna guztientzako baliabide erabilgarria izan zedin. Xedea, Ikuspegia eta Ardatz estrategikoak ezarri diren unean hasi da parte hartze hori, eta bi frontetan gauzatu da:

1.- Ekarpenak biltzea.

Pertsona eta eragile guztiei prozesuan parte hartzeko adorea eta erraztasunak emateko asmoz, web orrialdea eta helbide elektronikoa jarri dira. Planaren koordinatzaileak horien bitartez jaso ditu pertsona edo estamentuek edozein fasetan egin nahi izan dituzten ekarpen guztiak. Web orrialde horretan jaso dira, egin ahala, lan dokumentu guztiak.

2.- Ardatz estrategikoak garatuko dituzten jarduketak proposatzeko osatu diren lantaldeetako edozeinetan parte hartzea zuzenean, bertaratuta.

Pertsona, estamentu edo erakunde interesdunek aukera izan dute ardatz estrategikoak garatzen lagunduko duten jarduketa zehatzak proposatzeko osatu diren lantaldeetan parte hartu nahi zutela adierazteko.

PARTE HARTZAILEAK

1. Proiektuko zuzendaritza taldea
2. Barneko aditu taldea.
3. Kanpoko aditu taldea

6.- HASIERAKO PLANTEAMENDUA

Nafarroako Kirolaren Plan Estrategikoaren zuzendaritza taldeak, sustatu nahi den kirol politikaren arabera, ardatz estrategiko batzuk zehaztu ditu, gure Komunitatearen kirol eredu bereziaren bilaketan jorratu beharko dugun bidean gidari izan daitezten.

Nafarroako Kirolaren Institutuari dagokio kirol arloko politika planifikatu eta gauzatzea. Ildo horretan lehentasunak ezarri behar ditu eta bideak ezarri eta laguntza eman behar du proiektuak garatzeko, bai bere proiektuak eta bai Nafarroako kirolean parte hartzen duten sektoreek planteaturiko beste batzuk. Nafarroako Kirolaren Institutuak irekia izan behar du sektore horiekin eta guztiei lagundu behar die kirol politika zehatz baten alde.

Ikuspegi hau planteatzen du Nafarroako Kirolaren Institutuak: laguntza eman behar da ahalik eta nafar gehienek egin dezaten kirol eta gorputz jarduera, bakoitzak komenigarritzat jotzen duen mailan.

Horretarako, kirol praktikatik urrutien dabiltzan sektoreen parte hartze maila igoaraziko duten politikak sustatu behar dira. Adibidez, etorkinen, emakumezkoen eta adinekoen kirol jarduera areagotu behar da.

Hasiera batean lau jarduketa lerro nagusi ezarri dira:

1. Eskola adineko kirola
2. Osasunerako kirola
3. Lehiaketazko kirola
4. Kirol azpiegiturak

Horietako bakoitzetik, jarraian, lantaldeekin landu behar ditugun alderdi garrantzitsuenak nabarmenduko dira, non gauden eta norantz jo nahi dugun zehazteko abiapuntuko azterketa batean.

5.1.- Eskola adineko kirola:

- Haur batzuek, kirol lehiaketetan aritzeari utzitakoan, goizegi uzten dute bertan behera kirol jarduera, eta horrelako egoerei erantzun nahi zaie. Eskola adineko kirolak garrantzi handia du gaur egun, batetik pertsonen heziketa osoan laguntzen duen jarduera delako eta bestetik onuragarria delako osasunerako eta ongizaterako. Hala ere, egiaztaturik dago adinean aurrera egin ahala kirol jarduera bertan behera uzten dela eta ez dagoela kirol jarduerarekiko atxikimendurik. Horregatik, beharrezkoa da bizi ohitura iraunkorrak lortzea.

- Ikastetxeak giltzarri dira erreferentzia gisa. Ikastetxea jarduera gune bat da, ikaslearen jardueraren zati handi bat bertan garatzen baita. Ikastetxeak eragin handia du familiengan eta bere inguruko biztanleria osoarentzako jarduera eskaintzen ahal du. Ikastetxe onak ditugu eta haien baldintzak baliatu behar genituzke. Eskolan jarduera fisikoa eta kirola egiteko berariazko programak egin behar dira.

- Kirolaren balioak barneratu. Motrizitateko trebetasunak eta osasunarentzako onurak ez dira gorputz eta kirol jardueraren emaitza bakarrak. Horiez gain, kirola baliabide bikaina izan daiteke pertsonak gizarteratzeko eta gizartearen barne batasunerako, honelako balioak direla medio: desberdintasunen errespetua, elkartasuna, diziplina, tolerantzia, lidergoa, laguntasuna eta beste batzuk.

- Prestatutako teknikarien beharra. Gaur egun ikusten ari gara eskola kirolean esku hartzen duten kirol teknikariek ez dutela behar adinako prestakuntzarik kalitateko jarduera

bermatzeko. Arlo honetan zuzen-zuzenean lan egiten dutenei prestakuntzarako eta birziklapenerako aukera eman behar zaie, bada.

- Nafarroako selekzioak bultzatu, Nafarroako lurralde identifikazioaren eragileak diren aldetik. Nafarroako ordezkariak goren, autonomia erkidegoen arteko lehiaketetan, kirol modalitateetako nafar selekzioetan dago. Nafarroako kirolaren erakusgarri ederra izanen da gure kirolariek gu guztiok ordezkatzeko agertzen duten gogoia, eta ez bakarrik lortzen dituzten emaitzak, horiek ez baitira beti izaten gurea bezalako erkidego txikien kirol errealitatearen adierazle balioudunak.

- Eskola adineko kirola arautu. Eskola adineko kirola, norentzat den kontuan hartuta, arautu egin behar da, eskolako jarduera fisikoaren helburuari berari eragiten ahal dioten interferentziak eragozte aldera. Izan ere, eskola umeen garapen harmoniko eta orekatua da xedea, eta kirol jarduera haien gaitasunei eta hezkuntza beharrei egokitu behar zaie.

- Adingabeen babesa kirolean. Eskola adineko kirola erabili behar dugu gure haurren baldintza fisikoak, sozialak, psikologikoak eta abarrekoak hobetzeko. Beraz, aurrea hartu behar diogu adingabeen interesen aurkakoa izan daitekeen edozein egoerari.

5.2.- Osasunerako kirola:

- Inork ez du zalantzan jartzen gorputz ariketak pertsonen ongizatea eta bizi kalitatea hobetzeko duen garrantzia. Plan estrategiko honek helburu nagusietakoa izan behar du osasunaren hobekuntzarekin lotuta dagoen gorputz jardueraren portzentajea handitzea.

- Gorputzaren osasuna hobetzea onuragarria da pertsonarentzat, bizi kalitate hobea dakarkiolako, eta gizartearentzat, osasun arloko gastua jaitsi egiten delako. Hainbat erakundek egindako azterlanek erakutsi dutenez, jarduera fisikoan inbertitutako euro bakoitzeko 7 eurorainokoa izan daiteke osasun arloko gastuetan aurrezten dena.

- Kirol eredu horren estilorako behar diren instalazioak egokitu eta eraiki beharrean gaude. Oraintsu arte lehiaketazko kirola izan da herritarrek egiten zuten kirol jardueraren adierazpen nagusia, jostetarako edo/eta osasunerako kirolaren aldeko mugimenduei toki nagusia kentzen ziena. Joera aldaketak direla medio, gaur egungo kirol instalazioen diseinuari buelta eman zaio eta orain eskatzen diren jarduera moten arabera ari dira proiektatzen instalazio berriak.

- Nabarmentzekoa da jostetarako edota osasunerako kirolak lehia-kirolaren aldean hartu duen garrantzia. Goi mailako kirolak garrantzi handia du ordezkariari begira eta kirolean aritzeko akuilu gisa, gazteen artean bereziki. Hala ere, ez da ahaztu behar herritar guztien kirol jarduera sustatzea dela Administrazioaren xede nagusia eta horretan aritu behar duela jo eta ke.

- Oso garrantzitsua da Kirolaren Azterlan, Ikerketa eta Medikuntzako Zentroaren (KAIMZ) eginkizuna, eredu honetarako erreferentzia delako. Nafarroak baditu kualifikazio handiko langile eta instalazioak. Horiexek bultzatu eta garatu behar dituzte, osasunaren inguruko esparruetan, nazio mailan zein nazioartean erreferentzia izanen diren programak eta ikerketak.

- Kapitulu honetan aipatu ditugun helburuak bete daitezen beharrezkoa da sentiberatze kanpainak egitea, herritarrek kirola egitera bultzatzeko. Gai izan behar dugu komunikazio eta zabalkunde sistema eraginkorra taxutzeko, eskura dauden baliabide guztiak erabiliz, gure mezua herritar guztiengana irits dadin, batez ere arrisku taldeengana eta behartsuenengana.

- Nafarroak duen elkartegintza maila handia erabili behar da josteta-kirola eta osasunerako kirola garatu eta sustatzeko. Eragile asko ditugu lanean: ASVONA (Nafarroako kirol arloko boluntarioen elkarte), AEDONA (Nafarroako kirol klubuen elkarte), ANEFIDE (gorputz eta

kirol jardueretako Nafarroako enpresen elkarte), kirol federazioak, eta abar. Horiengan bermaturik iritsi behar dugu biztanle guztiengana.

5.3.- Lehiaketazko kirola:

- Federazioak:
 - Nafarroako kirol federazioek lan izugarri garrantzitsua egiten dute lehia-kiroleko jarduerak sustatzen eta antolatzen. Haien antolaketa eta funtzionamendua, oro har, aski egokiak dira, behar bezala aztertu eta konpondu beharko ditugun gabeziak gorabehera.
 - Egiten ari diren lana aitortu behar zaie federazioei eta horiekin loturiko beste eragileei. Gehienetan diru saririk gabe aritzen dira gure Komunitateko kirolaren alde.
 - Kirol federazioek administrazio eginkizun publikoak betetzen dituzte eskuordez, Administrazio Publikoaren laguntzaile gisa arituz. Beraz, federazioek jasotzen dituzten funts publikoekin egiten duten gastua kontrolatu behar dugu.
 - Teknifikazio programak. Gaur egungo funtzionamendua hobetzeko, komenigarria litzateke koordinazioa areagotzea eta kontrol sistema eraginkorragoak ezartzea. Errendimendu handiko kirolarien prestakuntzan esku hartzen duten eragile guztiek jardun behar dute haien kirol-garapenean. Horretarako beharrezkoa izanen da haiek guztiek parte hartzea teknifikazio programen ezarpenean, horiek kirolarien benetako beharretara egokitu daitezen.
 - Gorputz jardueraren inguruko joera eta ohitura berrien eraginez, biztanle gehien-gehienek kirol lehiaketa arautua baino nahiago izaten dituzte aisiarekin eta jostetarekin lotutako kirol programak. Ohitura berri horietan kirol federazioek ere beren tokia bilatu behar dute, jolas jarduera hori maiz bilakatzen baita lehia, maila txikiagokoa eta aisiaren eremutik hurbilagokoa bada ere. Neurri batean, federazioek beren eskumenen artean onartu behar lituzkete lan arlo berri horiek. Errendimendua eta kirol lehiaketa ez ezik, osasunerako kirolaren barneko alor berriak ere jorratu behar lituzkete.
 - Prestakuntza programak proposatu behar dira ez bakarrik kirol teknikarientzat, baita udal, klub, federazio eta abarretako kirol zuzendarientzat ere. Izan ere, kudeaketaren alorrean funtsezko aldaketa gertatzen ari da kirol jardueri buruz dugun ikuspegian, eta horregatik behar-beharrezkoa dugu prestakuntza ematea gure kirol buruzagiei eta, oro har, kezka horretan partaide diren pertsona guztiei. Denentzat ikastaro eta prestakuntza-jarduera egokiak proposatu behar ditugu.
- Eliteko kirola: bakarkako kirolak eta taldekoak.
 - Bakarkako kirolei dagokienez, “Miguel Indurain” fundazioak helburutzat du Nafarroan errendimendu handiko kirol jarduera sustatu eta garatzea, eta garrantzi bereziko lehiaketetan (joko olinpiarrik, munduko txapelketak edo Europako txapelketak) parte hartzeko aukera duten nafar kirolarien prestakuntzan, kontrolean eta egokitzapenean parte hartzen du.
 - Errendimendu handiko kirolari nafarrei “babes osoa” ematen die haien lan baldintzak hobetzeko, kirol errendimendua handitzeko eta goi mailako lehiaketetan ahalik eta emaitzarik onenak lortzeko.
 - Nafarroako taldeek nazioko eta nazioarteko goi mailako lehiaketetan parte hartzen dutenean funts publikoak jasotzen dituzte, dela zuzenean, diru-laguntza gisa, dela Administrazioarentzako publizitate zerbitzuen truke, babes kontratuak direla bide.

- Beharrezkoa da erakundeek babesten dituzten kirol proiektuak bideragarriak izatea kirolaren zein ekonomiaren aldetik eta, ahal den heinean, haietan kirolari nafarrek parte hartzea. Ez dezala Nafarroako kirolari bakar batek ere kanpora joan beharrik izan proiektu horietan lekurik ez izateagatik, behar adinako kirol maila baldin badu.
- Nafarroako goi mailako kirol jarduera gainbegiratu eta babesteaz gainera, Kirol Administrazioak haren garapena bultzatu behar du. Horretarako, lankidetzak bideak bilatu beharko ditu eta eskura dituen baliabide material eta ekonomikoak eskaini.
- Nafarroan sortzen diren goi mailako proiektuei babes emateko bideen artean, beharrezkoa da enpresak bultzatzea kenkari fiskal, sari eta abarren bitartez, Nafarroako kirol egiturari eusten lagun dezaten.
- Administrazio publikoek laguntza eman behar diete Nafarroan antolatzen diren kirol gertakariei, are gehiago haietan herritar askok parte hartzen dutenean. Kirolaren gorespena zabaltzeko baliatu behar ditugu gertakari horiek. Aldi berean pizgarri gisa erabili ahalko dira beste arlo batzuetan, esate baterako turismoan, kulturean edo gure autonomia erkidegoaren sustapenean.
- Goi mailako kirolari laguntzeko, beharrezkoa da Nafarroako kirolarien prestazio, laguntza eta betebeharren esparrua berrantolatzea, baita goi mailako kirolarien estatutua ere. Hori egiten badugu, informazioa lortu ahalko dute eguneroko lanean aurreikusita izan behar dituzten kontu guztietarako eta epe labur, ertain eta luzeko plangintzarako.
- Kirolaren Azterlan, Ikerketa eta Medikuntzako Zentroa (KAIMZ) nazioan eta nazioartean ospe handia duen erakundea da eta are gehiago bultzatu behar dugu Nafarroako goi mailako kirolarientzako laguntzan eta kontrolean parte hartzera.
- Goi mailako kirolak eskatzen duen ahalegin eta dedikazio handiak maiz eramaten ditu kirolariak gorputza neurritz gain behartzera, edo istripuak gertatzen zaizkie eta berehalako artapen medikoa behar izaten dute. Beraz, kirolarien segurtasuna bermatzeko eta kirol aseguruaren prestazioak hobetzeko lan egin behar dugu.

5.4.- Azpiegiturak:

- Nafarroan ez dugu kirol eta kultur gertakari handien agertoki izan daitekeen instalaziorik. Nafarroako Erabilera Anitzeko Kiroldegien eraikuntzak gabezia horiek betetzen lagunduko du.
- Kirol azpiegituren plan zuzentzailea egin beharra dago, Nafarroako kirol instalazioen eraikuntza eta zaharberritzea planifikatzeko. Gaur egun eskatzen ari diren kirol instalazio mota berriak, hirien hazkundea eta oraingo instalazio zaharkituak ikusita, beharrezkoa dugu inbertsioen plangintza bat, epe ertain eta luzekoa.
- Gaur egungo errealitateak diosku kirol azpiegituren sare izugarri zabala dagoela, kasu batzuetan gehiegizkoa ere badena. Beharrak ongi aztertu eta zehaztu behar ditugu, oraingo instalazioak erdizka ez erabiltzeko edo kudeaketaren aldetik bideraezinak izanen diren instalazioak ez egiteko.
- 80ko eta 90eko hamarkadetan kirolerako eta aisialdirako instalazio ugari eraiki ziren Nafarroan. Lehendik dauden instalazioak berritu, mantendu eta egokitzea gero eta beharrezkoagoa da, herritarrek gaur egun aukeratzen dituzten kirol jarduerak bestelako instalazioak behar dituztelako.

- Gorputz eta kirol jarduerak segurtasunez egin daitezten saiatzeak lehentasunezko helburuetakoa izan behar du. Istripuei aurrea hartu eta kirol instalazioetan segurtasun hori bermatu nahi bada, segurtasunari buruzko arauak betearazi beharra dago.

- Arkitektoek eta instalazioen kudeaketan adituek osatutako taldeak antolatzeko betebeharra ezarri behar da, instalazioak behar bezala eraiki daitezten eta beren kudeaketarako ezaugarri egokiak izan ditzaten. Hori egin ezean kirol instalazio ikusgarri eta erraldoiak izanen ditugu bai, baina oso kudeaketa zailekoak hala ekonomiaren aldetik nola kirolaren aldetik.

- Ingurumena zaintzeko eta hura hobetzen laguntzeko, ingurumenaren arloko baldintzak finkatu behar dira kirol instalazioen eraikuntzan.

- Nafarroa, bere lurraldearen ezaugarriengatik, natur ingurunean kirola egiteko aukera ugari dituen autonomia erkidegoa da. Naturarekin zerikusia duten kirol programetarako babesa, sustapena, pizgarriak eta erraztasunak eman behar ditugu.

- Nafarroako Kirolaren Institutuari zenbait kirol zentro kudeatzeko ardura eman zaio. Komeni da Nafarroako Kirolaren Institutuaren zentro berekien etorkizuneko kudeaketari, eraikuntzari edo birmoldaketari buruzko azterlana egitea.

5.5- Beste batzuk

- Oraintsu sortu den Nafarroako Kirol Kontseiluak partaidetza eta aholku organoa izan behar du. Nafarroako Gobernua harengan bermatu behar da bere erabakiak hartzerakoan.

- Nafarroako Kirolari buruzko Foru Legeak erregelamendu berri eta erabaki askoren beharra du, garatu ahal izateko. Hala ere, oraindik ez da horrelakorik egin, legea 2001etik indarrean egon arren.

- Kirol jarduerak ongi garatu eta arautzeko, Nafarroako kirolaren antolamendua egin behar da, gure Komunitatean kirolaren maila guztiak zehatzuz eta mugatuz. Hala, jarduera fisikoaren mota guzti-guztiak arautu behar dira, haur txikietatik hasi eta hirugarren adineraino, osasunerako kirolek hasi eta muturreko edo goi mailako kiroleraino.

- Funts publikoak ongi kudea daitezten, eta kirol jarduera, ohitura osasuntsuak eta aisia maiz elkarri loturik daudenez, departamentuen arteko koordinazioa sustatu behar da; batez ere Hezkuntza, Osasun eta Ingurumen departamentuekiko koordinazioa sustatu behar da, hain zuzen ere.

- Nafarroako biztanle ugari unibertsitarioak dira. Unibertsitarioen kirol jardueraren azterketa egin behar da kirola egiteari utz ez diezaioten, kontuan izanik etapa horretan behera egiten duela kirol jarduerak.

- Proposamen horiek guztiak baliagarriak izan dira Nafarroako kirolaren egoerari buruzko azterketa sakonagoa egiteko eta gure Komunitateko kirolaren hobekuntza helburu izanen duten ekintza planak diseinatzeko garaian aintzat hartuko ditugun ardatz estrategikoak zehazteko.

Premisa horietatik abiatuz garatu dira Nafarroako kirolarentzat nahi dugun etorkizuna, gure Komunitatean sortzen den jarduera fisiko guztiaren dinamizatzailerak garen aldetik dugun Xedea, eta noraino iritsi nahi dugun erakusten digun Ikuspegia.

Hori guztia gogoan, aurrerago azalduko ditugun jarduketara printzipioei jarraituko diegu, horietan izanen baitira gure Kirol Ereduaren balioak.

7.- NAFARROAKO KIROLAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

7.1.- SARRERA

Nafarroako Kirolaren Plan Estrategikoan parte hartu duten eragileekin egindako bileretatik ondorio batzuk atera ahal izan ditugu, erreferentzia gisa, Nafarroako kirolaren gaur egungo egoerari buruz.

Esan dezagun, lehenik, bilera horietan parte hartu duten pertsona guztiak Nafarroako kirolarekin loturik daudela nola edo hala, eta hainbat estamentutatik etorri direla. Klub, kirol federazio, elkarte, irakasle, entrenatzaile, kirolari, zuzendari eta abarrek azaldu dute nola ikusten duten Nafarroako kirolaren egoera.

Ekarpen eta gogoeta horiei taula batzuk erantsi dizkiegu, Nafarroako Foru Komunitateko kirolari buruz egindako azterlanetatik hartuak. Azterlan horiek, azken lauzpabost urteotan egin direnez, balio handia izanen dute hemen proposatzen denaren froga zientifiko eta objektibo gisa erabiltzeko.

Ez zen gure asmoa, baina egindako AMIA azterketaren emaitzak ikusita, errazagoa izan da ahuleziak eta mehatxuak mahai gainera ekartzea indarrak eta aukerak baino, eta hori ez da inondik ere gure Komunitateko kirolaren egoerari buruzko lekukotasun ezkorra, baizik eta, areago, pertsonen izaera kritikoaren emaitza, hobetu beharrekotzat jotzen dena hobetu beharrez, eta, halaber, egiten diren gauzetako asko ez ezagutzearen ondorio.

Plan Estrategikoan parte hartu duten lantaldeek Nafarroako kirolaren egoeraz egin duten balantzea laburbildu nahi izan dugu dokumentu honetan, azpimarratu beharreko alderdi garrantzitsuenak seinalatuz. Ez dugu azterlan estatistikorik egin nahi izan inkestetan lortutako datuekin, jada egin direlako horrelako azterlanak orain dela oso denbora gutxi. Baina erabili ditugu beste lan batzuk, lehenago esan bezala; horien artean, espainiarren kirol ohituren gaineko inkesta, osasunari buruzko inkesta nazionala, Espainiako kirol instalazioen errolda eta Nafarroako kirolaren eragin ekonomikoari buruzko azterlana. Horien bitartez identifikatu nahi izan ditugu azterketan lortutako emaitzetako batzuk. Zalantzarik gabe, lau azterlanok oraintsukoak direnez balio osoa dute, eta ez dago antzeko beste batzuk egin beharrik. Horiek guztiak eskura daude eta aztertzen ahal dira horretarako ezarri den orrialdean: www.deportenavarra.es

Horiek guztiak erreferentzia gisa hartu dira eta parte hartzaileei eman zaizkie, Nafarroako kirolaren egoeraren gaineko azterketa zehatzagoa egin ahal izateko.

7.2.- KOMUNIKAZIOA

Aintzat hartu eta baloratu beharreko kontu oso garrantzitsu bat agertu da, kirolaren “egunerokoa” dela-eta lantalde guztiek azpimarratu duten arazo bat, hain zuzen ere. “Egiten denaren gaineko komunikazio eta zabalkunde falta” edo egiten diren programei buruzko “ezjakintasun erabatekoa” harritzeko motiboak izan dira lantaldeetan.

Parte hartzaile askok aitortu dute ez dituztela ezagutzen kirolaren alde egiten diren ekintzak eta esku hartzen duten eragileak, edo ez dakitela zer egiten den berek parte hartzen ez duten beste estamentu batzuetan. Hori gertatu bada kirolaz, oro har, nolabaiteko kezka duten pertsonekin, zer izanen ote da biztanleria orokorrean.

Kirolaren analisiari buruzko lehenbiziko ondorio orokorra honela azaltzen ahal dugu laburbilduta:

Kirolaren arloan egiten diren programa eta jarduketan gaineko zabalkundeak hobetu beharra dago, bai Administrazio Publikoaren aldetik, baita erakunde edo elkarte pribatuen aldetik ere.

Horretarako zenbait konponbide proposatu dira, baina guztietan garrantzitsua teknologia berrien erabilera da. Egia da zerbait egiten ari dela, baina dirudienek ez zaio mundu guztiari iristen. Erakundeen web orrialdeak “serioegiak” dira bisitak erakartzeko. Beste ekimen batzuk, adibidez Nafarroako Kirol Jokoen web orrialdea, guztiz erabilgarriak dira baina inor gutxi ezagutzen ditu, nonbait. Federazio gehien-gehienek ez dute beren irudia indartzen web orrialdeetan, beste horrenbeste gertatzen da klubekin.

7.3.- PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA

Beste gai orokor bat, parte hartzaile guztien ahotan ibili dena, kirol jardueran esku hartzen dutenentzako prestakuntza programa gehiagoren beharra izan da. Eta kontua ez da programarik ez dagoela, programak egon badaude eta oso onak, baizik eta, ziur aski eta aurrekoarekin loturik, programak ez direla ezagutzen.

Prestakuntzaren arloko jarduketa asko burutzen dira bai Administrazioan eta bai federazioetan, baina guztiek ez dute nahi adinako arrakastarik. Kirolari gazteenentzako begirale eta entrenatzaile falta kezkarria, epaile, kirol buruzagi eta abarren gabezia, arazo larri bihurtzen ari da biztanleen artean kirol jarduera sustatzeko orduan.

Kirol federazio eta klub ugari arazoak izaten ari dira begirale eta entrenatzaileak lortzeko beren jardueretarako, eta zer esanik ez zuzendari edo epaileen bila hasten direnean.

Plan Estrategikoko lantalde guztiek aipatu dute arazo hori eta, egia esateko, konponbide zaileko arazoa da. Kirol Administrazioaren eta Hezkuntza Administrazioaren arteko koordinazioa, federazio eta klub artekoa, entrenatzaileen, zuzendarien eta Administrazioaren artekoa, hobetu beharreko esparru zabalak dira, arazo horiek gainditu nahi baditugu.

Hona hemen gure Komunitatean prestakuntza hobetzen lagun dezaketen urratsak: kirol prestakuntzaren arloko zentro baimendu bat sortzea, kirol prestakuntzako esparru guztiak batu eta elkarrekin koordinatuko dituen; eta kirol munduan esku hartzeko prestakuntza “nahitaezkoa” izatea.

Kirol munduko buruzagi, entrenatzaile, epaile eta abarrekoen lanaren balorazio soziala hobetzea ere ziur aski lagungarria izanen da arlo horretan aritzeko prest daudenak gehiago izan daitezen.

Nafarroako unibertsitateekin batera kirolaren arloko ikerketa eta prestakuntza gaietarako lankidetzaren programak abian jarri beharra izan da nabarmendutako alderdietako bat, eta egin beharreko ekintzen multzoen barnean azaldu da. Unibertsitateen kopuruari eta kalitateari dagokienez Nafarroa erkidego pribilegiatua da, eta berezitasun horrek ekartzen ahal dizkigun onurez baliatu behar dugu baita kirolaren munduan ere. Badira jarduketa-esparru horretan hasitako ekintzak, baina, ziur aski, denboraren buruan eta Nafarroako Kirolaren Institutuaren beraren zein unibertsitateen ekimenez, harreman kuota handiagoak lortu ahal izanen dira.

Gorputz jardueraren eta osasunaren arloko prestakuntzarako unibertsitate titulu berekiak sortzeko egin den proposamena lehenbiziko urratsa izan da helburu horri begira, jada burutu diren beste jarduerak batzuk bezalaxe, hala nola ikerlanak, prestakuntza azterlanak, graduatu ondoko bekak etab.

Denbora lagun eta Europako ikasketa-esparru berrian, nor daki egunen batean ez ote den proposatuko jarduera fisikoarekin, kirolarekin eta osasunarekin lotutako karreraren bat. Gaur egun nafar asko ari dira ikasten horrelako ikasketak eskaintzen dituzten beste autonomia erkidego batzuetan.

7.4.- ADMINISTRAZIO PROZEDURAK

Lantaldeetan biziki azpimarratu den beste eskari handi bat ondokoa izan da: kirol jarduerak egiteko eta antolatzekeo administrazio lanak erraztu egin behar dira bai Administrazioaren barnean bai gainerako mailetan. Administrazioaren, klubuen eta federazioen egokitzapen teknologiko urriak ez du batere laguntzen alderdi horren hobekuntzan.

Nafarroako Kirolaren Institutuko langileek berek adierazi dute prest daudela proposatzen diren proiektuak bideratu bitartean egin behar diren tramiteak errazteko eta, bereziki, bizkortzeko. Administrazio prozedura horiek maiz eragozten edo moteltzen dute hainbat programa garatzeko erritmo egokia. Beraz, gaur egun dagoen burokrazia administratiborako konponbide eraginkorrak bilatu eta aurkeztea proposatu da.

Gaur egun oso zaila da jakitea Nafarroan nor egingen duen jarduera fisikoa. Inkesta eta azterlan garrantzitsuenak ere ez datoz bat elkarrekin. Batzuentzat biztanleen %38 dira, besteentzat %45, eta, azkenik, paseatzea ere jarduera fisikotzat jotzen dutenentzat, %72.

Lantaldeetan agerian jarri zen Nafarroan gorputz jarduera zenbakitan neurtu behar genukeela, horrenbestez lortuko bagenu “itxuraz” atxikimendu ahulena duten biztanle taldeetan esku hartzea. Itxuraz diogu, errealitatea esaten ari zaigulako gero eta gehiago direla gorputz jarduera egiten duten emakumeak, gazteak, zaharrak eta etorkinak, hori bai, kirolak kontrolatzen dituzten ohiko erakundeekin loturarik izan gabe.

Lehiaketak ugaritzen ari dira federazioen eremutik at, gero eta gehiago dira jarduera fisikoak antolatzen dituzten “kirol arlotik kanpoko” elkarteak (erretiratuen klubak, auzo elkarteak, guraso elkarteak, federatu gabeko futboleko eta areto-futboleko ligak, enpresen ligak etab.). Gorputz jarduera egiten duten biztanle talde garrantzitsu horiek Administrazioaren kontrolari ihes egiten diote eta gogoeta eragin behar digute. Ez Administrazioak, ez federazioek, kirol klubek edo antzeko eragileek ez dituzte eremu horiek estaltzen. Estamentu “pribatu” horiei esker gorputz jarduera egiten duen jende multzo handiak Administrazioaren onarpena, aholkua, bultzada etab. merezi ditu, izan ere, kasurik gehienetan Administrazioaren egitekoa betetzen baitu gorputz jardueraren sustapenean.

Hori bai, komeni da nabarmentzea administrazio guztiek, bai tokikoek bai zentralak, ongi prestatu kirol teknikariez hornitu nahi dituztela Nafarroan aurkitzen ahal ditugun mota guztietako toki erakundeak. Nafarroako udal nagusiek eta mankomunitateek Nafarroako biztanleena %90 biltzen dituzte. Erakunde horiek badituzte langile kualifikatuak, ordezkatzeko dituzten biztanlerien kirol jarduerari dagokien guztia kudeatu eta dinamizatzeko.

Erantsitako taulan ageri diren udalerrri eta mankomunitateek badituzte kirol teknikariak, antolatzen duten kirol jarduera gidatzeko.

NAFARROAKO TOKI ENTITATEEN ZERBITZUKO KIROL TEKNIKARIAK

UDALAK	HERRIA	%	MANKOMUNITATEAK	HERRIA	%
ALTSASU	7.527	1,242	ARESO, ARAITZ, BETELU	1.811	0,299
ANTSOAIN	10.088	1,665	ERRIBERARTEA	8.947	1,477
ARANGUREN	6.483	1,070	ORREAGA	1.517	0,250
AZAGRA	3.735	0,616	IZARBEIBAR	4.534	0,748
BARAÑAIN	21.844	3,605	SAKANA	7.602	1,255
BAZTAN	7.847	1,295	ERRIBERAGOIENA	4.168	0,688
BERA	3.684	0,608	EBRO	7.297	1,204
BERIAIN	3.308	0,546	NAFARROAKO HEGOALDEA	9.624	1,588
BERRIOZAR	8.636	1,425	ERDIALDEA	19.876	3,281
BUÑUEL	2.374	0,392	ULTZAMA	3.287	0,543
BURLATA	18.337	3,027			
CASCANTE	3.940	0,650			
CASTEJÓN	3.964	0,654			
CINTRUÉNIGO	6.837	1,128			
CORELLA	7.686	1,269			
CORTES	3.350	0,553			
EGUESIBAR	7.079	1,168			
LIZARRA	13.931	2,299			
ESTERIBAR	1.911	0,315			
ETXARRI ARANATZ	2.450	0,404			
FUSTIÑANA	2.560	0,423			
GALAR	1.515	0,250			
UHARTE	5.157	0,851			
IRURTZUN	2.200	0,363			
IZABA	483	0,080			
LARRAUN	1.051	0,173			
LERÍN	1.822	0,301			
LODOSA	4.776	0,788			
MARTZILLA	2.687	0,443			
MENDABIA	3.789	0,625			
MILAGRO	3.116	0,514			
NOAIN	5.322	0,878			
OLTZA	1.558	0,257			
ORKOIEN	2.508	0,414			
IRUÑA	194.894	32,167			
AZKOIEN	5.746	0,948			
RIBAFORADA	3.466	0,572			
ZARAITZU NABASKOZE	196	0,032			
SAN ADRIÁN	5.977	0,987			
ZANGOZA	5.128	0,846			
SARTAGUDA	1.412	0,233			
TAFALLA	11.115	1,835			

TUTERA	32.760	5,407		
ULTZAMA	1.607	0,265		
VALTIERRA	2.526	0,417		
VIANA	3.711	0,613		
ATARRABIA	10.226	1,688		
ZIZUR NAGUSIA	13.189	2,177		
	HERRIA	%	HERRIA	%
UDALETAN GUZTIRA	475.508	78,483	MANKOM GUZTIRA	68.663 11,333
NAFARROAN GUZTIRA	605.876	100,000	OSOTARA	544.171 89,816

Nafarroako Kirolari buruzko uztailaren 5eko 15/2001 Foru Legearen bidez kirola arautu nahi izan da bere estamentu guztietan. Garapen falta, ordea, foru lege hori bete-betean baliatzea eragozten ari da. Beraz, helburu garrantzitsua da foru lege hori garatzea, legezko ildoak arautu eta markatzeko, kirola jarduera antolatua izan dadin eta mundu guztiak jakin dezan zertan oinarritu erabakiak hartzeko garaian.

7.5.- LEHIAKETA

Lehiaketaren ikuspuntutik lehenbiziko gogoeta orokorra egin behar litzateke zenbait alderdi kontuan hartuz: eliteko kirola, kirol federatua edo jolas-lehiaketa, federatua nahiz federatu gabea, analisi desberdinak behar dituzten gaiak dira.

Estatistikak izugarriak dira Nafarroako goi mailako kirol errendimenduaren adierazleei dagokienez; horixe da errealitatea, eta gogoeta eragin behar digu. Kirolari olinpiarren kopuruaren azken urteotako beherakada ez da izan aurrean dugun arazoaren adierazle bakarra; gure Komunitateko eliteko taldeetako nafar kirolarien erreferentziaren galera ere eremu horretan dugun defizitaren erakusgarri argia da. Bai Portland San Antoniok, bai MRA Xotak edo emakumezkoen Itxako-Navarra taldeak kirolari nafarrak galdu dituzte urtez urte, beste kirolari nazional edo atzerritar batzuen fitxaketak ugaritu ahala. Arazo hori ez da haiena bakarrik, beren klubentzat onena bilatu behar baitute, Nafarroako kirola osatzen dugun pertsona guztiona baizik. Zerbait oker egiten ari gara, kirol horietako edo beste kirol batzuetako harrobiak garai batean bezain emankorrak ez izateko.

Ez da une egokia honelako egoerara zergatik iritsi den aztertzeko, askotariko arrazoi ugari aurkituko genituzkeelako, baina egoerak gogoeta eragin behar digu, bai, ohartu behar dugu nola orain arte esleitu izan diren baliabideek, langile, azpiegitura, diru baliabide eta abarrekoek, ez dituzten ekarri espero ziren emaitzak.

Igeriketak, atletismoak eta eskubaloiak, adibidez, Nafarroan betidanik ospe ona izan dute eta kirolari handiak eman izan dituzte, baina orain kirol horiek biztanleen zaletasuna eta indarra galtzen ari dira eta, horrekin batera, gure eliteko kirolaren erreferente izateari uzten ari dira.

Aldiz, eta modu bitxi samarrean, Nafarroan nabarmentzen hasi dira olinpiarrek ez diren arloetako kirolariak edo kirol tradizionalen aldean berezitat jotzen diren kirolak. Nafarroako Kirolaren Institutuak aldi behin gure kirolarien arrakasten zerrenda egiten du. Horri arretaz erreparatuz gero, egiaztatzen ahal dugu trialbikea, borroka, tai-xia, motoziklismoa, whu-sua, taekwondo (teknika), patinajea edo pilota bezalako kirolek, programa olinpiarretik kanpokoek, Nafarroarentzat emaitza handiak lortzen dituztela, programa olinpiarreko kirolak garrantzia galtzen ari diren bitartean emaitzei dagokienez.

Egia da azken urteotan nazio mailan zein nazioartean gailendu diren kirolarien belaunaldia izan dugula eta horiek markatu dutela ildoak, lortu beharreko emaitzei dagokienez. Miguel Induráin, Aitziber Los Arcos, Gabriel Esparza, Marta Mendía, Iñigo Monreal, Ricardo Echarte, Mateo Garralda eta beste batzuk gure Komunitateko eliteko kirolarien erreferenteak izan dira duela oso gutxi arte. Badirudi kirolari handien multzo hori erretiratu denean ez direla etorri guztiok espero eta bilatu izan ditugun ordezkioak haien lekua hartzera, eta horrek hausnarketa eragin behar digu.

Laguntzak igo ditugu, instalazioak handitu, teknikarien prestakuntza luzatu eta dedikazioa areagotu, eta, hala ere, ez dira lortzen espero diren emaitzak.

Plan Estrategikoaren 2. fasean lantaldeekin egin diren bileretan gutxi izan dira helburu horren hobekuntzari begira egindako ekarpenak. Arrazoiak aipatu dira, bai, egoera hori zergatik gertatzen ari den azaltzeko, eta kasu askotan arrazoiak lotura estua dute Nafarroako gizarteak bere maila ekonomiko handiari esker garatzen ari den bizi ohiturekin. Ohitura berriok honelako ondorioak sortzen ari dira: konpromiso gutxiago, askatasun handiagoa, xedeak lortzeko ahalegin txikiagoa, gazteak gero eta gehiago urruntzea lehiaketazko kirol arautu eta zorrotzetik, prestazioak hobetu eta goi mailako kirol lehiaketan aritzera eraman ditzakeen horretatik.

Gaur egun oso gazte gutxi daude prest goi mailako lehiaketak eskatzen dituen ahalegina eta nekea onartzeko. Horregatik, eskakizun apalagoak dituzten kirol modalitate edo arloak bilatzen dira sarritan, are gehiago, “hainbesteko nekerik” hartu gabe emaitza bikainak lor daitezke eta Administrazioak horiek ere ontzat ematen ditu.

Egoera horri loturik, gero eta gazteago kirol lehiaketa bertan behera uzten dutenen indizea (azterlan batzuen arabera, %28 inguru) oso kontuan hartu beharreko adierazlea da. Hala ere, itxuraz biztanleriaren kirol jarduera hazten ari da, edo behintzat ez du beherantz egiten.

Planteatzen diren pizgarri sozial, ekonomiko eta bestelakoek ere ez dute lortzen kirolariak eta haien familiak motibatzea kirolarien prestazioen hobekuntzan gogotik lan egiteko, kirol helburu handiagoak lortze aldera.

Nafarroako Kirolaren Institutuak hurrengo urteetarako ezarri nahi dituen planteamendu berrien bidez, hobera egitearen eta helmuga garrantzitsuak bilatzearen ideia hori berreskuratu nahi da gure kirolari gazteen artean.

Egia da, halaber, eta horrela azaldu da lantaldeetan, une hauetan berritze edo txanda aldaketa gertatzen ari dela zenbait klub kirol egituretan eta horri esker goi mailako errendimenduko klub berriak agertzen ari direla, hala nola, oraintsu sortutako gizonezkoen eta emakumezkoen saskibaloitaldeak, Basket Navarra Club (HNV Duar) eta Unión Navarra Basket (Obenasa Navarra) hurrenez hurren, edo Béisbol Navarra eta Waterpolo Navarra. Proiektu horiek guztiak sortu dira hainbat klubek bat egin dutelako orain arte beren modalitateetan izan dutena baino kirol piramide arrazionalago baten bila.

Beharbada horixe izan daiteke hartu beharreko bidea, indarrak batu eta kirol piramide osoak bilatzea, piramidearen erpin estuagoa baina hobeki prestatua lortu arte.

Une hauetan, eta neurri batean Nafarroako Gobernuaren babesari esker, horrelako aldaketak egiten ari dira klub kirol egituretan, eta parte hartzen duten guztiak proiektu berean biltzeko ahalegina egiten ari da. Horrek, ordea, Nafarroako kirolarien onerako izan behar du, ez da bihurtu behar kanpoko kirolarien bidez kirol maila hobetzeko diru sarreraren iturri. Gaur egun lehiaketazko “kirola egiteko” modu berri horri ekiten ari zaizkion klub, federazio eta entitateek erronka handia dute aurrean: eredu izatea, hemendik aurrera antzeko proiektuek jarraibidea izan dezaten. Horregatik oso garrantzitsua da kirolarekin zerikusia duten eragileen, Administrazioaren, komunikabideen, enpresen, klub kirolarien eta abarren babesa helburu hori lortzeko.

Goi-lehiaketako kirolean diharduten kirolari eta entrenatzaileei dagokienez, beharrezkoa ikusten da goi mailako kirolaria izateak berekin dakarren guztia arautuko duen estatutua egin eta ezartzea. Ikasketetarako eta lan mundurako sarbideak, edo laguntza publikoa jasotzen duten kirolariak izateagatik dagozkien eskubideak eta betebeharrak, besteak beste, dokumentu bakar batean arautu beharreko gaiak dira. Halaber, kirolarien zerbitzu gutuna egitea proposatzen da. Kirolariek dokumentu horretan aurkituko dute jakin behar duten guztia: kirolarien baldintzak, laguntzak eta bekak, ikasketak egiteko erraztasunak, instalazioak, medikuntza zentroak eta abar.

Nafarroan bada bestelako kirol lehiaketa mota bat, biztanleen artean oso hedatua, portzentajeetako goiko tokietan kokatzen gaituena Espainiako beste autonomia erkidego batzuen aldean. Erdi mailako lehiaketa federatuak, kirol elkarten barnean eta federazioen baten mende egiten denak, osasun ona du Nafarroan. Nafarroako Kirol Jokoei eta, bereziki, federazioetan musu truk lan egiten duten pertsona ezezagun askoren ahaleginari esker, lortzen ari da gero eta gehiago izan daitezen kirol modalitateetan lehiatzen diren kirolari federatuak.

Antolaketa, langileak, finantzaketa, azpiegiturak eta abar direla-eta izaten dituzten arazoak gorabehera, kirol federazioak beren lehiaketak handitzen ari dira, batez ere beheko kategorietan. Gaur egun nafarren 10% daude federatuta Nafarroako 41 federazioetan.

Nafarroako Kirolaren Institutuak, berriki aurkeztu duen programa osoan, federazioentzako zerbitzu komunak sortu ditu. Horrek kudeaketa hobetzea ahalbidetuko du eta, batez ere, hobetu egiten dira federazioen lan baldintzak, bai kirolaren aldetik (laguntza teknikoa) bai administrazioaren aldetik (kontabilitaterako eta administraziorako laguntza).

Plana egiten parte hartu duten lantaldeek gure iritziz nabarmendu beharrekoak diren zenbait kontu planteatu dituzte, hala nola, Nafarroan lizentzia bakarra ezartzeko aukera, federazioetako langileen eta are zuzendaritzako karguen “profesionalizazioa”, edo kirol klubek federazioen eguneroko jardunean gehiago parte hartzeko programen bilaketa.

Kirol gehienetan hedatzen diren kirol helburuen dibertsifikazioa da lehiaketazko kirol federatuen aurkitu ditugun arazoetako bat. Federazio batean kirol eredu beraren inguruan elkartu behar dira oso helburu desberdinak dituzten entitate edo klubak, eta hori nekez gainditzeko ahal diren barne arazoak sortzen ari da.

Nafarroako kirolaren testuinguruan nabarmendu beharreko zenbait gauza interesgarri ikus ditzakegu ondoko taulan; esate baterako, Nafarroan federazio asko ditugula, kirolari federatuen portzentaje handia dugula, hain zuzen ere biztanle guztien %10 inguru, eta, alderdi negatiboan, Nafarroan alde handia dagoela gizonezkoen lizentzien eta emakumezkoen lizentzien artean; izan ere, erregistraturiko 64.743 lizentzietatik gizonezkoen kategoriakoak %78,45 dira (50.786 lizentzia) eta emakumezkoenak %21,55 (13.957 lizentzia). Kontuan izan behar da emakumezkoen kirol jardueraren portzentaje handiena gazteenen taldean dagoela.

Datu hau ere garrantzitsua da: kirolari guztien ia %50 Nafarroako 41 federazioetatik 6tan daude (futbola, mendia, saskibaloia, ehiza, pilota eta golfa).

Nerabegarora iristean (gazteen eta juniorren kategoriak), kirol modalitate guztietan, gizonezkoen nahiz emakumezkoen lizentzien kopuruan agertzen den beherakada ere aintzat hartu beharreko datu garrantzitsua da.

NAFARROAKO FEDERAZIO BAKOITZAK 2007-2008 DENBORALDIAN TRAMITATURIKO FEDERAZIO-LIZENTZIAK

FEDERAZIOA	GIZONEZKOEN LIZENTZIAK								EMAKUMEZKOEN LIZENTZIAK								GUZTIRA FEDERAZIOA
	KIMUAK	HAURRAK	KADETEAK	GAZTEAK	JUNIORRAK	SENIORRAK	BESTE BATZUK	G. GUZTIRA	KIMUAK	HAURRAK	KADETEAK	GAZTEAK	JUNIORRAK	SENIORRAK	BESTE BATZUK	E. GUZTIRA	
URPEKO JARDUERAK		20			24	92	29	165		39			15	37	16	107	272
XAKEA	196	33	20		10	239	41	539	45	4	2			12	5	68	607
ATLETISMOA	196	61	75	71	37	217	47	704	222	130	94	40	15	57	34	592	1.296
AUTOMOBILISMOA	5		4	13	9	98	22	151					3	7	4	14	165
BADMINTONA	11	21	12	3	3	4	28	82	10	18	10	5	3	5	23	74	156
SASKIBALOIA	558	276	276		162	610	356	2.238	1.167	617	412		181	313	395	3.085	5.323
ESKUBALOIA	227	254	201	164		404	257	1.507	244	264	218	115		169	213	1.223	2.730
BEISBOLA ETA SOFBOLA	66	77	53	75		161	81	513	5	8	0	0		8	13	34	547
EHIZA						4.138		4.138						20		20	4.158
TXIRRINDULARITZA	185	63	60		61	901	215	1.485	19	3	4		2	33	17	78	1.563
KIROL EGOKITUAK							414	414							231	231	645
AIREKO KIROLAK						126		126						5		5	131
NEGUKO KIROLAK	28	53	5	21	11	47	2	167	18	23	7	10		7	2	67	234
MENDI KIR. ETA ESKALADA							6.153	6.153								0	6.153
ESPELEOLOGIA						91	3	94		1				10		11	105
FUTBOLA	3.528	2.201	1.951	2.144		3.407	368	13.599		418	305	81		559		1.363	14.962
GIMNASTIKA		31				69	6	106		425				130	45	600	706
GOLFA	187	68	63		117	538	1.642	2.615	131	41	46		84	384	670	1.356	3.971
HALTEROFILIA		30	10	16	22	82	30	190		2			1		2	5	195
HERRI KIROLAK	42	55	59			213	10	379	43	34	35			72		184	563
ZALDI KIROLA	88	87	28	25	10	227	20	485	198	129	73	46	14	252	20	732	1.217
JUDO ETA K.E.	972	134	92		80	475	77	1.830	376	50	21		24	96	12	579	2.409
KARATEA		607				412		1.019		398				149		547	1.566
KICK BOXINGA						355		355						5		5	360
MOTOZIKLISMOA	4		3	6	112	49	53	227								0	227
IGERIKETA	292	174	26	19	56	152	279	998	344	170	37		59	121		731	1.729
PADELA	36	29	23	15		536		639	13	11	10	8		266		308	947
PATINAJEA	170	46		29	27	111	74	457	252	57		37	19	27	32	424	881
PILOTA	1.140	481	263	203	169	602	131	2.989	8	3	0	5	13	38	7	74	3.063
ARRANTZA				31		444	3	478				5		31		36	514

PIRAGUISMOA	93	33	18	6		123	195	468	87	23	12	2		36	42	202	670
ARRAUNKETA	5	7	14	28		83	9	146	13	14	12	7		35	1	82	228
ERRUGBIA		53	69	67	42	164	28	423		4		4	5	15	1	29	452
SALB. ETA SOROSPENA						91	12	103						72	3	75	178
TAEKWONDOA	392	70	121	76	63	273	170	1.165	166	75	87	43	45	109	56	581	1.746
TENISA	135	76	48		27	240	25	551	58	24	16		9	36	8	151	702
PING-PONGA		4	3	4		17	10	38						5	4	9	47
PING-PONGA			23		1	209	23	256			4		4	26		34	290
TIRO OLINPIARRA					24	1.200	1.008	2.232					15	56	1	72	2.304
TRIATLOIA	47	29	26	11		113	161	387	23	18	15	4		10	41	111	498
BELA		10		5		100	60	175		6		2		20	30	58	233
GUZTIRA	8.603	5.083	3.546	3.032	1.067	17.413	12.042	50.786	3.442	3.009	1.420	414	511	3.233	1.928	13.957	64.743

Lizentzien, klubien eta kirol-guneen kopurua dela-eta, federazio askotan lehiaketek kategoria berean elkartzen dituzte oso proiektu desberdinak dituzten klub eta taldeak. Hala, proiektu handinahiak, aurrekontu mardulak eta inplikazio handiko estamentuak (kirolari, teknikari eta buruzagiak) dituzten klubekin lehiaketa berean aritzen dira lehiaren gainetik josteta lehenesten duten klubak, maiz egitura sendorik gabe, instalaziorik gabe eta, bereziki, etorkizuneko proiekturik gabe sortuak direnak

MODALITATEA	KLUBEN KOP.2008
URPEKO JARDUERAK	18
XAKEA	74
ATLETISMOA	116
AUTOMOBILISMOA	24
BADMINTONA	18
SASKIBALOA	143
ESKUBALOA	106
BEISBOLA	16
EHIZA	190
TXIRRINDULARITZA	156
KIROL EGOKITUAK	26
AIREKO KIROLAK	16
NEGUKO KIROLAK	54
MENDI KIR. ETA ESKALADA	123
ESPELEOLOGIA	14
FUTBOLA	400
GIMNASTIKA	57
GOLFA	9
HALTEROFILIA	7
HERRI KIROLAK	37
ZALDI KIROLA	17
JUDO ETA A.K.	57
KARATEA	36
KICK BOXINGA	13
MOTOZIKLISMOA	50
IGERIKETA	78
PADELA	14

PATINAJEA	68
PILOTA	155
ARRANTZA	44
PIRAGUISMOA	23
ARRAUNKETA	4
ERRUGBIA	14
SALBAMENDUA ETA SOROSPENA	3
TAEKWONDOA	35
TENISA	54
PING-PONGA	33
ARQU-TIROA	14
TIRO OLINPIARRA	35
TRIATLOIA	23
BELA	8
GUZTIRA	2.382

Nafarroako kirol entitateen errolda. Kirol klubak. 2008

Oso konponbide zaila duen egoera horren ondorioz, autonomia erkidegoko lehiaketa askoren kirol maila lausoa da eta motibazio txikia eragiten die kirolariei, batzuk eta besteak guztiz baldintza desberdinetan ari direlako lehiatzen, eta, batez ere, helburu oso desberdinak dituztelako. Auzoko autonomia erkidegoekin federazio arteko akordioak egitea konponbide ona izan daiteke orain gertatzen ari den barreiatze honetarako. Horrela, bakoitza berak merezi dituen kategorietan eta baldintzetan lehiatzen jarriko genuke guztien onerako.

Nafarroako kirolaren egoera lantaldeen barnean aztertu zenean beste gai hau ere azaldu zen: federazioek eta haien kirol organoek zer nolako koordinazioa eta lotura duten Nafarroako Kirolaren Institutuak sustatzen dituen teknifikazio programekin.

Teknifikazio programek ez dute emaitza onak lortzeko adinako arrakastarik izaten, batzuetan informazio falta dela-eta, besteetan koordinazio ezagatik nahiz klub eta entrenatzaileek edota kirolariek berek programetan izaten duten inplikazio urriagatik.

Hain zuzen ere arazo horiek gainditzeko helburuarekin egin da programa berri bat, dagoeneko Nafarroako Kirolaren Institutuko arduradunek onespenerako aurkeztu dutena. Baliteke programa hori izatea guztion eragilea, lan egiteko modu berri bat sustatuko duena, eraginkorragoa eta epe laburrean fruituak emanen dituen.

7.6.- OSASUNA ETA LEHIAKETA

Nafarroan gertatzen ari den fenomeno batek kontuan hartzeko hazkundera izan du azken urteotan: erakunde publiko zein pribatuek gero eta kirol lehiaketa gehiago antolatzen dituzte kirol federazio tradizioaletatik kanpo.

Jada ezagunak eta ohikoak diren Boscos edo HKA lehiaketei eta Nafarroan duela urte askotatik arrakasta handiz errotuta dauden beste batzuei, azkenaldian ezin konta ahala txapelketa gehitzen ari zaizkie. Kirolzale mordo ederrak biltzen dira lehiaketa horietara eta lehiatzeko haratagoko ezaugarriak bilatu ohi dituzte; esaterako, horrelako gertakari askoren jolas edo gizarte alderdiaren bila joaten dira.

Une hauetan baditugu federazioetatik kanpoko lehiaketak hainbat kirol modalitateetan, baina bereziki futboleko edo areto-futboleko aurkitzen dira parte hartze indize handienak, alde batera utzi gabe txirrindularitza bere zikloturista taldeekin, atletismoa, bela, eta ezin konta ahala saio herrikoi eta txapelketa sozial pilotan, tenisean, padelean eta abarreko modalitateetan.

Udal, kontzeju, ibar, erakunde pribatu, enpresa, unibertsitate, klub eta abarrekoetan ligak eta txapelketak antolatzen ari dira, maiz federazioetakoak berak gainditzen dituzten parte hartzaile kopuruekin (futbito txikia, gazteen areto-futboleko udalerrri arteko liga Iruñean, unibertsitate barneko txapelketak, Desafio Empresas saria etab.).

Hori berez ez da ez ona ez txarra, baina adierazletzat hartu behar dugu, kirol lehiaketak antolatzerakoan federazioetako estamentuekiko mendekotasunaren beharra gero eta txikiagoa den seinale baita. Lizentzien, epaileen edo aseguru medikoen prezioak direla medio, federazioetatik urruntzen ari dira “jostetako” kirolari hauek.

Beharbada talde horretan egon daitezke kirol lehiaketa federatua oso gazte utzi eta bestelako kirol jarduera horri ekiten dioten kirolzaleetako asko.

Lantaldereen batean aipatu zen Nafarroako Kirolaren Institutuak “Guztientzako Kirolaren Nafarroako Federazioa” sortu eta bultzatu behar lukeela, edo gisako organoren bat, kirolari horiek guztiak elkartu eta orain arte bezala beren jarduera antolatzen utziko diena baina, horrekin batera, kirol jarduera “kontrolatu”, kirolarien lana erraztu, eta behar duten laguntza emanen diena. Federazio horrek lehiarik gabeko mantentze eta josteta jarduerak egiten dituzten kirolzaleak ere hartuko lituzke barnean, aerobic, igeriketa, spinning eta horrelakoetan aritzen direnak, hain zuzen. Erakunde berri horren beharrik ez legoke baldin eta jada eraturik dauden federazioek beren helburu eta programen artean sartuko balituzkete kirol praktikari buruz “bestelako kontzeptuak” darabiltzaten pertsonentzako jarduera berariazkoak, bai lehiaketa mailan eta bai josteta mailan ere.

7.7.- ESKOLA ADINEKO KIROLA

Ikerketa gutxi egin da 3 eta 16 urte bitarteko haurrek egiten duten gorputz jarduerari buruz. Espainian kirol ohituren inguruan egin diren azterlan gehienetan 16-18 urtetik aurrerako pertsonen datuak erabili dira. Osasun Ministerioak egindako “Osasuna Espainian” azterlanean, erreferentziatzako datu garrantzitsu gisa azaltzen da Nafarroan adingabeen %80k gorputz jardueraren bat egiten dutela asteen behin gutxienez, maiztasuna eta intentsitatea zehaztu gabe. Nafarroako tasa hori Espainiako handienetakoa da. Lortutako ratioak handiegia irudi lezakeen arren, eta hura ontzat emanda ere, horrek ez du esan nahi eskola adineko kirola “osasuntsu” dagoenik, badiarelako beste indize batzuk esaten digutenak zerbait ez datorrela bat emaitza bikain horiekin.

Inkesta horiek berek erakusten digute gero eta gehiago direla egoneko bizimodua, obesitatea, bihotz-hodietako nahasmenduak, diabetesa eta horrelako arazoak dituzten haurrak. Hala, oraintsuko datuek diotenez, Nafarroan 5 eta 15 urte bitarteko haurren artean batez beste %18 dira obesitatea edo gehiegizko pisua dutenak. Portzentaje hori Espainiako batez bestekoa baino txikixeagoa da. Espainiako dagoeneko Europar Batasuneko aurreneko tokietan kokatu da. Nafarroako eta Iruñeko alde batzuetan, ordea, obesitatea edo gehiegizko pisua duten haurren portzentajea %30etik gorakoa da. Obesitatearen zifra horiek are handiagoak dira 5 urtetik beherako

haurretan. Eta, hala ere, gero eta gehiago dira hain zuzen ere arazo horiei aurre egitea helburu duten programak. Nafarroako Kirolaren Institutuak kanpaina oso interesgarriak jarri ditu abian txikien artean gorputz jarduera eta bizi ohitura osasungarriak sustatzeko helburu nagusiarekin. Kanpaina horiek hurrengo urteetan ebaluatu beharko dira zer nolako emaitzak lortu diren ikusteko, baina ezin gaituzte ase, zeren, kasu askotan, talde jakinei eragiten dieten proiektu pilotuak izan baitira, alegia, ez dira iritsi eskola ume guztiengana. Azpimarratu behar da, dena den, esperientziaren lehenbiziko urtean puntu erdi murriztu zela obesitatearen eta gainpisuaren batez besteko portzentajea, kanpaina lagundu zuten ikastetxeetan.

Lantaldeek egin dituzten bileretan, eskola kirolaren edo eskola adineko kirolaren gaiak ekarpen ugari azaldu dira. Maiz aipatu izan da bizitzako aro horretan esku hartzen duten estamentuen arteko koordinaziorik eza. Bai Hezkuntza Departamentua, bai Osasun Departamentua, eta, kasu honetan, baita Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentua ere, Nafarroako Kirolaren Institutuaren bitartez, gazteen artean bizi ohitura osasungarriak elkarlanean sustatzera beharturik daude.

Duela urte askotatik Nafarroan eskola jardueren programa zabal-zabala erabiltzen ari da partaidetzari eta aniztasunari dagokienez. Administrazioa bera, ikastetxeak, kirol federazioak eta klubak lehiaketaren arloan nahiz jostetaren arloan jarduera sorta ezin interesgarriagoa garatzen ari dira.

Nafarroako Kirol Jokoak (17.013 parte hartzaile), eskoletako kirol kanpainak (8.527 parte hartzaile), Eskola Kiroleko proiektu pilotua (1.920 parte hartzaile), Kirolaren Balioak kanpaina (11.461 parte hartzaile) eta haurren obesitateari aurrea hartzeko kanpaina (750 parte hartzaile), besteak beste, Nafarroako Kirolaren Institutuaren ekintza nagusiak dira adingabeen parte hartzeari dagokionez, eta kirol jarduera eskola umeengana eramateko interesaren adibide argiak dira. Jarduera horiek etenik gabe berrikusi behar dira unean uneko egoerara egokitzeko; horixe izanen da finkatutako helburuak lortzeko giltzarria.

	URTEAK	IKASTETXEAK	PARTE HARTZAILEAK	HEZKUNTZA BEREZIKO IKASTETXEAK	EZGAITASUNAK DUTENAK	N.G.ko LAG. (€)
IRAUPEN ESKIA	2006	129	4.798	6	56	554.267,02
	2007	124	5.021	7	60	589.944,99
	2008	124	4.813	8	95	667.437,68
JARDUERAK NATURAN	2006	28	992	2	29	68.510,99
	2007	33	1.333	2	29	97.126,49
	2008	41	1.627	4	51	125.913,16
BELA	2006	28	1.059	4	53	126.374,67
	2007	24	1.102	4	53	145.000,00

	2008	38	1.448	6	61	211.861,42
IZOTZ GAINEKO PATINAJEA	2006	0	0	0	0	0,00
	2007	12	315	0	0	10.642,22
	2008	18	639	0	0	19.397,83

Nafarroako Kirolaren Institutuak azken urteotan antolatutako eskoletako kirol kanpainetako parte hartzea

NAFARROAKO KIROL JOKOAK 2007-2008											
	BENJ.	BEN. E.	KIMUAK G.	KIMUAK E.	HAURRAK G.	HAURRAK E.	KADETEAK G.	KADETEAK E.	GAZTEAK G.	GAZTEAK E.	GUZ- TIRA
URPEKO J.			4	10	10	23	10	11	11	7	86
XAKEA	126	30	53	14	32	4	15	2			276
ATLETISMOA	85	95	111	127	61	130	73	94	71	40	887
BADMINTONA	20	10	4	12	16	5	4	5			76
SASKIBALOIA	315	236	492	688	276	630	280	414	164	182	3.677
ESKUBALOIA	39	29	188	219	254	264	201	218	164	115	1.691
BEISBOLA			57	2	57		55		66		237
TXIRRINDULARITZA			33	2	45		56				136
NEGUKO KIR.			23	18	13	12					66
MENDI KIR.			106	125	29	48	14	34	4	9	369
EMAK. 7ko FUTBOLA				209							209
ZELAIKO FUTBOLA					2.032		1.757				3.789
ARETOKO FUTBOLA					252	209	300	126	258	54	1.199
GIMNASTIKA ERRITMIKOA		48		48		12		30		24	162
HERRI KIROLAK			42	43	55	34	59	35			268
ZALDI KIROLA			5	21	3	30	2	4			65
PATIN-HOCKEYA			23	6	28	2	17	2	21	1	100
JUDOA	129	42	92	45	68	34	48	12			470
KARATEA			2	5	80	68	38	12	66	19	290
IGERIKETA	109	118	87	122	64	88					588
PADELA	32	8	32	12	30	16	20	10	8	6	174
PATINAJEA			31	78	27	44	14	21			215
PILOTA	259	2	279	6	231	3	210		150	5	1.145
ERRUGBIA											0
TAEKWONDOA			9	6	58	31	47	39	10	7	207
TENISA					66	25	47	15			153
PING-PONGA					14	1	8		16	2	41
DUATLOIA	14	6	18	6	9	1	8	4	6	1	73
TRIATLOIA	33	19	22	15	4	4	24	18	9	3	151
BELA			13	6	6	4					29

WATERPOLOA			59	53	29	12	11	20			184
GUZTIRA	1.161	643	1.785	1.898	3.849	1.734	3.318	1.126	1.024	475	17.013

Nafarroako Kirol Jokoetako parte-hartzearen datuak 2007/2008 denboraldian

Udalen kirol eskolak, eskola umeentzako igeriketa kanpainak edo udalerrri arteko kirola dira, besteak beste, toki entitateek txikienei eskaintzen dizkieten jarduerak. Hemen ere eskaintza hobea lortuko dugu helburuak eta metodologia berrikusten baditugu, une bakoitzari eta kirol mota bakoitzari egokitu behar zaizkielako.

Gaur egun haurrei heltzen zaien kirol jardueren eskaintza, eskola umeen talde batzuetan zabala baino zabalagoa dela esan dezakegu. Gehienbat ikastetxe itunduetako haurrek, Iruñeko kirol klubetan dabilzanek eta Nafarroako herri handienetan bizi direnek jasotzen dute eskaintza ona. Jardueren eskaintza dezente urriagoa dute, aldiz, populaziorik handi samarretatik urrun dauden ikastetxe publikoetan edo herrietan.

Ikastetxe batzuetan eta toki entitate txikietan eskola adineko kirol jarduera galtzen ari da, dela baliabide ekonomikoen faltagatik, dela jarduerak antolatzeko prest dauden pertsona inplikatuak faltagatik edo, gutxiagotan, instalazio faltagatik, baita adin talde bereko parte hartzaileak aski ez izateagatik ere. Eskola kiroleko programak sustatu behar dira ikastetxeak berak parte hartzera bultzatuz, instalazioak, langileak eta diru baliabideak eskura jarritz, eskola ume guztiek izan dezaten gorputz jarduera eta kirola egiteko aukera.

Administrazioak berak bilatu behar du bidea, ikastetxeek -gorputz hezkuntzako departamentuen bitartez, beharrezkoa izanez gero- ikasle eta gurasoak koordinatu, bultzatu, eta honelako jarduerak egiteko eta antolatzeko adorea eman diezaieten. Akordioak behar dira Hezkuntza Departamentuarekin, profesionalei egiten zaien eskaintza proiektu honen garapenean murgilarazteko bezain erakargarria izan dadin.

Beste kontu bat da eskaintza horren kalitatea. Ez gara beti txikienei eskaintzen ari haien premia biologiko eta emozionalerako moldatutako kirol jardueren programa. Espezializazio goiztiarrarekin, gehiegizko lehiakortasunarekin eta nagusien erregelamenduak eskola umeen lehiaketetara ekarrita, gure neska-mutikoen kirol garapenaren etapa zentzuzkoak "jaten" ari gara.

Zenbaitetan gurasoak gehiegi nahasten dira eskola umeen lehia-jardueretan, eta lortu nahi den helburuaren kontra-contrakoa lortzen ari da horrela. Frustrazioak, gehiegizko lehiakortasuna, harreman txarrak, jarduera zuzendu behar duten arduradunen prestakuntzarik eza, horrelako gaitzak eguneroko ogia dira asteburu guztietan ikastetxeetako patioetan ikusten ahal ditugun kirol jardueretako askotan.

Eskola kirola bultzatzeaz gainera eskola kirolaren alderdi hezitzaileak eta jostariak berreskuratuko dituzten ekintzak jaso behar dira Nafarroako Kirolaren Plan Estrategikoan.

Europar Batasunak orain dela gutxi eskatu du eskoletan jarduera fisiko gehiago egin dadila, gorputz hezkuntzako irakasgaiari ordu gehiago emanez. Eskakizun horri ezin zaio ezentzunarena egin Nafarroako Kirolaren Plan Estrategiko honetan. Gure erkidegoa aitzindaria izan da hezkuntzak sustatzen dituen eta hezkuntzarekin zerikusia duten alor askotan, eta seriotasunez hartu behar luke Europar Batasunaren eskaera hori. Ba al da modu hoberik gure haurrei beren bizi baldintzak, beren osasuna eta beren etorkizuna hobetzen laguntzeko, ikastetxeetan bertan eta eskola orduen barnean gorputz jarduera egiteko aukera ematea baino? Egia da Nafarroan lortu dela behintzat Gorputz Hezkuntzako orduak ez murriztea, beste autonomia erkidego batzuetan egin den bezala. Hala ere, lantaldeek beharrezkotzat jo dute Gorputz Hezkuntzako orduak gehitzea lehen hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako etapetan.

Eskola adineko kirolak zenbait zutabe garrantzitsu ditu: jardueraren xede diren eskola umeak berak, haien gurasoak, kirol teknikariak eta jarduerak ematen dituzten irakasleak.

Azken bi horiek azterketa zehatzagoa merezi dute testuinguru honetan. Jada prestakuntzari buruz hitz egitean, Nafarroako jarduera fisikoetan lan egiten duten teknikarien prestakuntza hobetu beharra aipatu da. Biztanleriaren sektore horri eman behar litzaioke arretarik handiena, hain zuzen ere huraxe delako ahulena.

Eskola adineko kirolean pertsona ugari parte hartzen dute boluntario gisa eta asmorik onenarekin baina prestakuntza urriarekin. Horiek haurrengan sortzen duten eragina nahi denaren kontrakoa izan daiteke. Horregatik, lantaldeetako batzuetan beharrezkotzat jo da Nafarroako Gobernuak arautzea pertsona horiek kirol jardueretan duten partaidetza, haien prestakuntza eta gaikuntza sustatuz eta, areago, haiek parte hartzeko gutxieneko baldintzak ezarriz.

Akats horiek arintzeko laguntza handia izanzen litzateke kirol arloko lanbideak arautuko lituzkeen lege bat, gure erkidegoan egiten diren kirol jardueretan nork, nola eta zein modutan esku har dezakeen zehaztuko lukeena.


Nafarroako Kirol Institutuak hastapen mailako irakasle izateko ikastaroak ematen ditu. Ikastaro horiek sortzea laguntza garrantzitsua izan da lortu nahi den helburuari begira, baina ekintza erasokorragoak behar lirateke, prestakuntza egokirik gabeko pertsonen ikastaroetan parte hartzeko pizgarriak emateko.

7.8.- OSASUNERAKO KIROLA

Nafarroan, bereziki Iruñean, kirol zentro pribatuak ugari egin dira, eta gure erkidegoko administrazioek udalerrri edo eskualde mailako kirol instalazioak eraikitzeko politika darabilte. Ondorioz, lehiaketarekin estu lotuta zegoen kirol eskaintza tradizionala beste bide batzuk hartzen ari da, osasunarekin, gizarte harremanekin eta abarrekin zerikusi handiagoa dutenak.

KIROLA EGITEKO ARRAZOI NAGUSIA						
Zu zeu kirolzalea izan edo ez, zure ustez zein da jendeak kirola egiteko duen arrazoi nagusia?	Guztira	Gizona	Emakumea	18-35 urte	36-55 urte	56 urte eta +
Sasoi onean egotea	30	27	33	31	34	26
Osasuna zaintzea	44	42	47	37	44	52
Jolastu eta ongi pasatzea	16	21	10	22	13	12
Lagun, senide eta abarrekin harremanak izateko aukera ematen du	2	3	2	4	1	2
Eguneroko zereginak ahaztea	2	2	1	2	2	1
Lehia gustatzen zaigulako	0	1	0	1	0	0
Konfiantza eta autoestimua hobetzea	5	5	6	4	6	6
Beste batzuk	0	0	1	0	1	0
Iturria: Kirolaren eragina Nafarroako ekonomian. Nafarroako Unibertsitate Publikoa						

Gero eta gehiago dira instalazio “berri” horietan antolatzen diren jardueretan parte hartzen duten pertsonak. Eta berriak diogu, haietako batzuk aspaldi abiatu ziren arren, lehen ez zutelako erakartzen orain erakartzen duten bezainbeste jende. Biztanle talde batzuetan, esate baterako emakumeen edo adinekoen artean, gaur egun gertatzen ari den kirol zaletasunaren “boom” hori, jakin behar da bideratzen eta bultzatzen eta, batez ere, baliatzen. Estatistikoki biztanleriaren sektore ahulak izaten segitzen dute kirol jarduerari dagokionez, baina, aldi berean, beren eguneroko bizitzan jarduera berriei ekiteko erraztasun eta joera handiagoa duten sektoreak dira.



Osasunari buruzko inkesta nazionaletik. Nafarroako datuak.

Gero eta gehiago dira kirol jarduerak beren kabuz antolatzen dituzten gizarte entitateak. Auzo elkarteak, etxekoandreenak, erretiratuenak, gurasoen elkarteak eta horrelakoak beren kideen artean kirol jardueraren sustatzaile bilakatzen ari dira. Gehienetan kideek berek eskatzen diete, beren bizi kalitatea hobetzeko gorputz jarduera egin beharraz jabeturik.


Inguruabar hori zerbait positibo bilakatu behar da bizi ohitura osasungarrien sustapenerako, baina alderantzizko eragina ere izan dezake, ez baldin bada erakunde-estamentuetatik arautzen. Begiraleen prestakuntza urriak eta erabiltzen diren instalazioetako batzuen egokitzapen kaskarrak, hain zuzen ere, jarduera horietatik lortu nahi den emaitzaren kontrakoa lortzea eragin dezakete. Hori guztia, baloratzen hasi gabe jarduerak ematen dituzten profesionalen kontratazioaren arautze faltagatik gerta daitekeen bidegabeko lehia. Arazo horrek egunez egun bezeroak galtzera eraman ditzake sektoreko enpresak, Plan Estrategikoko lantaldeetako batzuetan salatu den bezala.

Hurrengo taulan ikus dezakegu zer eskatzen dioten herritarrek Nafarroako Kirol Administrazioari. Neurri handiagoan, eskakizun horiek, nagusiki, lotura sendoagoa dute aisia eta jostetako kirol motarekin errendimenduko kirolarekin baino.

4.6 TAULA. ADMINISTRAZIOAREN LEHENTASUN NAGUSIA KIROLAREN SUSTAPENEAN						
Administrazioaren lehentasun nagusia kirola sustatzeko orduan	Guztira	Gizona	Emakumea	18-35 urte	36-55 urte	56 urte eta +
Haur eta gazteen kirol sustapena ahalbidetzea	32	32	32	29	31	36

Pertsona guztien kirol jardueraren gehikuntza ahalbidetzea	27	22	32	25	29	27
Kirol instalazioak eraikitzea	26	30	22	28	27	23
Gaitasun handiko kirolariei babes ematea beren kirol ibilbidean ⁵	4	6	5	3	7	
Kirol gertakariak egiteko babes ematea	4	7	2	>7	3	3
Kirol federatuari eta lehiaketazko kirolari laguntzea	3	3	2	3	4	2
Beste batzuk	1	1	0	1	1	0
Talde profesionalei laguntzea	1	0	1	0	0	1
Ez du erantzun	1	1	2	1	1	2
Iturria: Kirolaren eragina Nafarroako ekonomian. Nafarroako Unibertsitate Publikoa						

Kirola etorkinen eta hemengo biztanleen arteko bizikidetzarako baliabide gisa erabiltzearena garrantzi handiko beste aztergai bat izan da. Errealitateak diosku gero eta gehiago direla kirol arloan etorkinen kolektibo eta elkarteetan egiten diren jarduketak. Asteburuetan jatorri desberdinetako etorkinek parke eta plazak betetzen dituzte beren herrietan ohikoak diren kirol modalitateetan taldean aritzeko. Elkarteek ere ligak eta txapelketak antolatzen dituzte eta kolektibo horiek parte hartzen dute haietan.



Osasunari buruzko inkesta nazionaletik. Nafarroako datuak.

Lortzen ari ez dena, eta guztiontzat erronka dena, etorkinak kirol instituzionalizatuaren esparruan sartzea da. Federazio, klub, kirol elkarte eta abarrek erronka horixe dute aurrean, hain zuzen ere: egiten dituzten jardueretara pertsona guztiak erakartzea eta denen parte hartzea sustatzea.

Aipatu kolektibo guztiei kirol jarduerarako pizgarriak emateko eskatzen zaio Administrazioari, kolektibo behartsuago horiek guztiak gorputz eta kirol jardueretara erakartzea helburu izan behar duten ekintza planak sendotu eta babes ditzala, alegia.

EGITEN DIREN KIROLLEN TIPOLOGIA

Egiten diren kirolen tipologia	Guztira	Gizona	Emakumea	18-35 urte	36-55 urte	56 urte eta +
Jolasezko igeriketa	25	19	35	17	29	41
Jolasezko txirrindularitza	21	23	18	16	26	23
Futbola	17	25	5	32	6	0
Mantentzeko gimnastika	17	9	28	8	25	23
Lasterketa oinez (jogginga)	11	15	4	10	14	7
Mendia, bidezidor-kirola	11	13	8	5	16	15
Pilota	10	15	2	13	8	3
Areto-futbola	9	12	3	18	0	0
Gimnastika erritmikoa, aerobica	9	1	21	7	9	13
Tenisa	6	5	8	9	5	0
Eskia eta neguko beste kirol batzuk	4	5	3	6	4	0
Muskulazioa, kulturismoa, halterofilia	4	5	2	7	3	0
Squasha, padela, badminton	2	3	2	3	2	0
Saskibaloia	2	3	1	5	0	0
Ehiza	2	3	0	1	2	3
Arte martzialak	2	2	1	1	3	0
Lehiaketazko igeriketa	1	2	0	2	0	0
Atletismoa	1	2	0	2	0	0
Boxeo, borroka, defentsa pertsonala	1	2	0	2	0	0
Arrisku eta abenturako kirolak	1	2	0	1	1	0
Arrantza	1	1	0	0	1	2
Tiroa	1	1	0	0	2	0
Beste batzuk	3,5	5	6	9	1	2

Iturria: Kirolaren eragina Nafarroako ekonomian. Nafarroako Unibertsitate Publikoa

7.9.- AZPIEGITURAK

Ezertan agertu badira ados lan honetan parte hartu duten guztiak, Nafarroako Foru Komunitateko kirol instalazioen maila handia aitortzean izan da, kopuruari nahiz kalitateari erreparatuta.


Kirol-guneak	Kopurua
LURREKO JARDUERETARAKO GUNEA	7
FUTBOL ZELAIK	194
GOLF ZELAIK	13
TIRO EREMUK	11
BIZIKLETETARAKO ERREIK	2
KARTING ZIRKUITUK	3
PILOTALEKUK	651
TRADIZIOZKO JOLASAK ETA HERRI KIROLAK	7
BESTELAKO EREMUK	66
BESTELAKO EREMU KONBENTZIONALAK	17
BESTELAKO EREMU BEREZIK	12
PILOTALEKUA DUTEN PABILOIK ETA PILOTALEKU ITXIK	98
AIRE ZABALEKO IGERILEKUK	152
IGERILEKU ESTALIK	415
JAUZI-IGERILEKUK	1
ATLETISMOKO PISTAK	39
ESKI PISTAK	4
ZALDIKETAKO PISTAK	28
PADELEKO PISTAK	57
PATINAJEKO PISTAK	28
PETANKA PISTAK	9
ESKUAXEKO PISTAK	58
TENISEKO PISTAK	137
KIROLEKO PISTAK	846
KIROLEKO PORTU ETA KAIK	7
ROKODROMOK	45
ARETOK	664
BELODROMOK	1
GUZTIRA	3572

Iturria: Kirol instalazioen katalogoa <http://deportes.tracasa.es/sumario.aspx>

Oharra: taula horretan jaso dira, Kirol Kontseilu Gorenaren katalogazio irizpideei jarraituz, Trabajos Catastrales S.A. (Tracasa) enpresa publikoak Nafarroan erroldatutako kirol instalazioen kopuru orokorrak, barnean hartzen dituztenak bai kirol instalazio homologatu eta erregelamenduzkoak, baita josteta eta jolasezko gorputz eta kirol jarduerak sustatzeko eta egiteko erabil daitezkeen beste eremu batzuk ere. Haien artean alde handiak daude, gainera, egoerari, neurriei, erabilerari eta abarreko inguruabarrei dagokienez.

Azpiegiturak garatzeko plan zuzentzaileek, bai urtebeteko planek eta bai hiru urtekoek ere, Nafarroa osoan biztanle gehien-gehien beharrak asetzen dituen kirol zentroen sarea osatzea ahalbidetu dute. Nekez aurkituko dugu gure erkidegoan inolako kirol instalaziorik ez duen herririk. Nonahi aurkitzen dira pilotalekuak, kiroldegiak, igerileku estali gabeak eta estaliak, jarduera aretoak eta abar.

Kirol Kontseilu Gorenak aldiari behin egiten duen kirol instalazioen erroldak horrela frogatzen du.



2.1 grafikoa: kirol eremuen kopurua metropoli eremuen arabera eta haien bilakaera 1975etik 2005era Nafarroako Komunitatean

Azpiegituretan aurkitu diren akatsen artean aipatzekoa da Nafarroak dituen natur baliabideak ez direla ongi baliatzen kirol jarduerak egiteko. Nafarroako lurraldea kirol eremuztat hartu behar da bere osoan, duen aniztasun geografikoagatik eta kirol arloan eskaintzen dizkigun aukera zabalengatik. Administrazioak ikuskera hori bultzatu behar du, ez kirol helburuetarako bakarrik, baita turismorako eta bestelako helburuetarako ere.

Gizarte Gaietako, Turismoko eta Ingurumeneko departamentuen arteko koordinazioaren beharra bistakoa da, honelako kirol instalazioak sustatze aldera.

Komenigarria litzateke koordinazio hori bera ezartzea Hezkuntza Departamentuarekin ere, eskola instalazioek beren proiektuetan kirol instalazio egokiak izan ditzaten, eskola adineko kirolerako ez ezik, baita eskola ordutegitik kanpo erabiltzeko ere. Horrela saihestuko genuke instalazioak bikoiztea eta administrazioek ordaindu beharreko kostua ere bikoitza izatea. Kasu askotan hori kontuan hartu da, baina komeni litzateke ikastetxe berrien proiektuetan Nafarroako Kirolaren Institutuak esku hartzea aholku eta orientabidea emateko eta behar diren kirol instalazioak planifikatzeko.

Bestalde, lehenbailehen egin beharreko jarduketa gisa ikusten da kirol instalazioen plan zuzentzaile berri bat, urteroko aurrekontu esleipenekin zerikusirik izanen ez duena, hurrengo urteetan jarraitu beharreko politika markatuko duena eta pixkanaka hondatzen ari diren instalazioen zaharberrikuntza eta modernizazioa bultzatu behar dituen.

Plan zuzentzaile horrek ondoko irizpideak izan behar ditu oinarri:

- Nafarroako gizarteak eduki behar dituen oinarrizko azpiegiturak zehaztea, eremu geografiko bakoitzaren berezitasunak kontuan harturik.
- Kirolaren maila guztiak (jolasa, lehiaketa eta goi maila) aintzat hartzea.
- Azpiegitura berriaren interesa zehazteko erabili beharreko irizpide objektiboak (Nafarroako Kirolaren Institutuak laguntza ekonomikoa emateari begira).
- Azpiegituren oinarrizko sarearen, sare osagarriaren eta sare bereziaren diseinua.
- Tokian tokiko udal planekiko koherentzia/integrazioa.
- Indartu beharreko azpiegituren tipologia. Balioaniztasuna, funtzioaniztasuna eta aisia eta jostetako kirol jarduerak izan behar ditu xede.
- Lehendik badiren beste azpiegitura batzuk baliatzea (adibidez, gizarte etxeak edo eskolak).
- Azpiegiturretan kultur jarduerak ere egitea.
- Kirol federazio eta klubekiko koherentzia/integrazioa.
- Ingurumenaren arloko eta oro har iraunkortasunari lotutako alderdiak eranstea.
- Modu objektiboan neurtzea azpiegitura baten eraikuntzak gizarteari ekarriko dion onura.
- Jakintza arlo anitzeko taldeek parte hartzea azpiegituren diseinuan eta garapenean (arkitektoak, kirol teknikariak, kirol kudeatzaileak, mantentze gaietan adituak etab.). Planak sustatu behar luke aditu horiek guztiek kirol gaiei buruzko prestakuntza izatea nor bere jakintza arloan.
- Kontuan izatea etorkizunerako joerak, bai gizartearenak, baita kirol jardueretan, oro har, azaltzen direnak ere.

Orain aurkitzen ahal ditugun egoera bihurriak saihestuko lirateke irizpide orokor horien bitartez. Esate baterako, badira toki entitateek eraikitako kirol instalazio handiegiak, mantentze eta kudeaketa sistema korapilatsuak dituztenak. Horien errentagarritasuna, ekonomikoa nahiz soziala, oso txikia da.

Azken urteotan kirol instalazio berriak eraikitzen ari dira udalen baliabide ekonomikoei esker. Zalantzarik gabe, komeni da aurretik bideragarritasun azterketa bat egitea, gero arazorik ez izateko.

ERABILTZEN DIREN KIROL INSTALAZIO MOTAK						
Zer kirol instalazio erabili ohi duzu?	Guztira	Gizona	Emakumea	18-35 urte	36-55 urte	56 urte eta +
Instalazio publikoak	55	53	58	62	53	41
Toki irekietan	44	50	35	42	47	46
Klub edo elkarte pribatuen instalazioak	24	26	22	26	22	25
Etxean	8	4	13	3	12	11
Gimnasio pribatuan	4	4	3	5	2	5
Ikastetxeko instalazioak	2	2	2	3	1	3
Ez du erantzun	0	0	1	0	0	2
Iturria: Kirolaren eragina Nafarroako ekonomian. Nafarroako Unibertsitate Publikoa						

Pixkanaka lehiaketa mailan gora eta gora ari diren baina beren kirol jardueretarako instalazio egokirik ez duten kirol modalitateei irtenbideak eman behar zaizkie. Horixe da onartu beharreko beste erronka bat; ezikusiarrena egin ordez aintzat hartu behar dira modalitate horiek etorkizunerako dituzten aukerak eta gure erkidegoan lortu duten errotze maila.

Ez zaio inori oharkabeen pasatu Nafarroako kirol instalazio pribatuen ugaritze handia, bereziki hiriburuan, Iruñean. Egoera hori, Plan Estrategikoko bileretan parte hartu duten askoren iritziz, beste udalerrri batzuekiko desoreka sortzen ari da, batez ere eskualdearen barnean. Izan ere, ikusten ari gara instalazio pribatu bikainak ditugula baina ekipamendu publikoen gabezia dugula. Azken hiruzpalau urteotan egoera horri buelta ematen ari zaio kirolgune publiko berriak eraikiz edo lehendik daudenak birmoldatuz. Hor ditugu Arantzadikoak eta Sanduzelaikoak, edo laster inauguratuko den San Agustingo zentroa.

LEHENTASUNEZKO KIROL INSTALAZIOA AUKERATZEKO ARRAZOIA						
Gehien erabiltzen duzun kirol instalazioa aukeratu izanaren arrazoi nagusia adierazi	Guztira	Gizona	Emakumea	18-35 urte	36-55 urte	56 urte eta +
Hurbiltasuna	46	44	48	44	49	46
Ezin dut aukeratu	21	24	17	21	18	26
Nirekin joaten diren lagunak	10	12	8	13	8	7
Kalitatea eta pertsona bakoitzari zuzendutako zerbitzuak	7	7	6	7	7	7
Prezioa (kuotak, abonamenduak etab.)	6	4	9	6	8	2
Erakundeko kide sentitzea	5	6	4	3	7	8
Ordutegi zabala	3	3	4	3	4	3
Bestelako arrazoiak	1	1	2	2	1	0

Langileen profesionaltasuna eta adeitasuna	0	0	1	1	0	0
Ez du erantzun	0	0	1	0	0	2
Iturria: Kirolaren eragina Nafarroako ekonomian. Nafarroako Unibertsitate Publikoa						

Hurrengo taulan ageri den moduan, Nafarroan estatuko batez bestekoaren gainetik gabiltza kirol elkarteei eta kirol instalazio pribatuen erabilerari dagokienez.

Kirol elkarte hauetakoren bateko kidea zara?			
		BAI %	EZ %
Klub pribatu bateko kidea	Nafarroa	23.2	76.8
	ESTATUKO BATEZ. B.	21.2	78.8
Gimnasio edo antzekoak	Nafarroa	12.8	87.2
	ESTATUKO BATEZ. B.	18.6	81.4
Udalaren kirol elkarte bateko abonatua edo erabiltzailea	Nafarroa	37.8	62.2
	ESTATUKO BATEZ. B.	25.1	74.9
Kirol elkarte pribatu bateko abonatua edo erabiltzailea	Nafarroa	29.9	70.1
	ESTATUKO BATEZ. B.	11.9	88.1
García Ferrandok 2005ean espainiarren kirol ohiturei buruz egindako azterlanetik			

Gure kirolarentzat erronka izan behar du “Navarra Arena”, hots, Nafarroarentzako kiroldegi handi eta erabilera askotakoa eraikitzeak. Nahiz eta gaur egun, tamainari begiratuta, neurrigabea irudi dezakeen, kontu hau zenbakien hoztasunaz aztertzen baldin bada, argi dago etorkizunerako helburutzat hartu behar dela Nafarroako kirolak behar adinako maila irits dezala, kirolgune berri horrek kalitatezko kirol maila eskaini ahal izateko eta kirol modalitate jakin batzuk sustatzeko lagungarria izateko.

8.- XEDEA, IKUSPEGIA, JARDUTEKO PRINTZIPIO OROKORRAK

Aipatu behar dugu hemen aurkeztuko diren xedea eta printzipio orokorrak Nafarroako Kirolaren Institutuari dagozkiola, Nafarroako Foru Komunitatean kirol arloko politika planifikatu eta betearazteko ardura duen organoa baita. Horrela dago ezarrita Nafarroako Kirolari buruzko uztailaren 15/2001 Foru Legean.

XEDEA

Nafarroan kirol sistema bat sendotu eta garatzea, elementu bultzatzaile, bideratzaile eta bateratzaile gisa arituz Nafarroako kirolaren arloan diharduten eragile guztientzat.

IKUSPEGIA

Nafarroako ahalik eta biztanle gehienek kirola ohituraz egin dezaten lortzea, kirol jardueraren bitartez indartu egingen baitira hezkuntza, parte hartzea eta integrazioa eta, horrekin batera, hobetu egingen baita parte hartzaileen osasuna eta, horrenbestez, Nafarroako gizartearena.

“Kirol” terminoa Nafarroako Kirolari buruzko Foru Legean definiturik dagoenez, definizio horri lotuko gataizkio hura erabiltzen dugun bakoitzean.

KIROLAREN DEFINIZIOA (Nafarroako Kirolari buruzko Foru Legea)

“Kiroltzat hartuko dira helburu gisa antolatutako edo beste nolabaiteko parte hartzearen bitartez egoera fisiko eta psikikoaren adierazpide edo hobekuntza, harreman sozialen garapena edo maila guztietako lehiaketetan emaitzak lortzea daukaten jarduera fisikoak.”

JARDUTEKO PRINTZIPIO OROKORRAK

Kirol jardueraren unibertsaltasuna.

- a. Gizarte osoak benetako aukerak izan behar ditu gorputz eta kirol jarduerak egin ahal izateko.
- b. Azpiegitura egokiak eduki behar dira (modernoak eta ongi zainduak).
- c. Kirol irakaskuntzan aritzeko prestaturik eta gaiturik dauden irakasleak eduki behar dira maila guztietan.
- d. Kirol arloko eragile guztien (boluntarioak barne), kirol elkarten eta babesleen parte hartzea eta inplikazioa lortu behar dira.

Kirola hainbat balio eta onuraren iturri da gizartearentzat:

- a. Osasuna. Ongizatea
- b. Parte hartzea.
- c. Taldea/Laguntasuna. Sozializazioa
- d. Begirunea eta heziera ona.
- e. Integrazioa.
- f. Beste batzuk.

Kirol arloko eragile guztien eta harekin zerikusia duten erakundeen inplikazioa, partaidetza eta lankidetzat, Nafarroako kirol ereduaren bultzatzaile eta igorle gisa.

- a. Nafarroako Kirolaren Institutua.
- b. Toki entitateak.
- c. Kirol eragileak (federazio, klub eta abarrekoak).
- d. Boluntarioak.
- e. Babesleak.
- f. Kirola kudeatzeko enpresak.
- g. Komunikabideak.

9.- ARDATZ ESTRATEGIKOAK. GARAPENA

Orain arte ikusitako guztiarekin, zazpi ardatz estrategikoren inguruan lan egingen dugu. Horien gainean garatu behar dira Nafarroako Kirolaren Plan Estrategikoko ildo estrategiko guztiak.

Parte hartzaileen ekarpenek eta Plan Estrategikoaren proiektuaren hasierako definizioak ekarritako emaitza gisa sortu dira ardatz estrategiko horiek.

ARDATZ ESTRATEGIKOAK

1. Eskola adineko kirola.
2. Osasunerako kirola.
3. Lehiaketazko kirola.
4. Kirol azpiegiturak.
5. Langileen kualifikazioa (prestakuntza, gaikuntza etab.)
6. Erakunde harremanak.
7. Ikerketa eta berrikuntza

Aldez aurretik diseinaturiko ardatz estrategikoetako bakoitzean Nafarroarentzako kirol eredu berekia garatu eta zehaztu ahal izateko asmoarekin, ildo estrategiko batzuk markatu ditugu. Horiek gidatuko gaituzte Nafarroako kirolari buruz dugun ikuspegian markatutako helburuak lortzea xede izanen duten ekintzen bila.

Ildo estrategiko horiek aurrerago garatuko dira, dela banaka, dela beste linea batzuekin batera elkaturik, izan ere haietako batzuen zeharkakotasunak hala eskatuko baitu.

Definituriko ardatz estrategiko bakoitzetik zenbait ildo estrategiko hartu ditugu kontuan. Horiek geroago garatuko dira, Planaren azken helburuen lorpenari begira burutuko diren hainbat ekintzatan.

Lehen esan dugun moduan, ardatz estrategiko guztiak gauza asko dituzte berdinak eta zeharkakotasun handikoak, hainbat gaitan, esate baterako prestakuntzan, zabalkundeetan eta komunikazioan edo azpiegiturretan.

Horregatik, markatutako ildo estrategikoetan zeharkako gaiak ez dira ageri bereizitako ardatz estrategikoaren barnean; aitzitik, banaka identifikaturiko ardatz estrategiko orokor bati atxiki zaizkio. Modu horretan lortzen dugu osotasunaren ikuspegia ematea ardatz estrategiko bakoitzari, eta erraztu egiten dugu gero garapena, errazagoa izanen baita haietako bakoitza arduradun zuzenago batekin lotzea.

1. ARDATZ ESTRATEGIKOA: ESKOLA ADINEKO KIROLA.

Hona hemen ardatz honetan proposatzen diren ekintza ildoak:

- 1.- Zabalkundea, sentikortzea eta kontzientziarazioa.

Nori dagoen zuzendua ekintza hau:

- Gurasoak.
- Eskola umeak.

- Ikastetxe publiko eta pribatuetako arduradunak.

Helburua da izenburuko hiru ekintzak burutzea, zertarako eta, lehenik, aurreko solaskideek ezagutzen duten kirol mota izan dadin, eta kirol jardueraren onurak eta balioak ezagut ditzaten esparru guztietan (osasuna, hezkuntza, ongizatea etab.).

Eskola adineko kirola bai lehiaketa mailakoa bai jolas mailakoa dela ulertu behar da; horixe hartuko da oinarritzat, hain zuzen ere gizarteko talde guztiengan eragin ahal izateko xedearekin.

Komunikazio Plan baten bitartez burutzen ahal da ekintza. Plan horrek ondoko proposamenak bilduko ditu, besteak beste:

- Zabalkunderako solasaldiak ikastetxeetan, eskola umeei, irakasleei eta gurasoen elkarteei zuzenduak.
- Zabalkunde eta publizitate ekintza jarraituak. Ikastetxeetarako liburuxkak, iragarkiak etab.
- Gertakariak antolatzea berariaz eskola adineko kirolaren arloan (Nafarroako Kirol Jokoen gisakoak), baina agian garrantzi handiagoa emanez zabalkundeari, denborapasa hezitzaileari. Kontua ez litzateke izanen kirolean aritze hutsa, baizik eta, areago, kirol jarduerari beste gai batzuk eranstea, hala nola heziketa, kirolaren balioen azalpena, kirol jarduerak bat egitea eskola umeen eguneroko jarduerarekin, eta abar. Gertakari horiek eskola umeei, irakasleei eta gurasoei ere zuzendu behar zaizkie.

Azkenik, beharrezkoa da Administrazioak finantzaketa lerro bat ziurtatzea, beste finantzabide batzuk baztertzetik ez badago ere, proposaturiko lan ildo honen iraupena bermatzeko.

2.- Eskola Adineko Kirolaren Plana egitea.

Hau da ekintza honen helburu nagusia:

- Eskola Adineko Kirolaren Plana garatzea, eskola adineko kirola deitzen diogun horren edukia eta norainokoa zehaztuko dituen (jarduerak, lehiaketa, jolasa, heziketa etab.) eta honako ezaugarri hauek izanen dituen:
 1. Gaur egungo gizartearekin eta haren beharrekin integratzailea izatea. Kirola haurren, gurasoen eta ikastetxeen eguneroko jardueretan txertatzen ahalegindu behar du.
 2. Xede diren biztanle talde guztiei aplikagarria (mailaren arabera, adinaren arabera, sexuaren arabera, gaitasunen arabera, etab.).
 3. Federazioak eta udalak inplikatzeko dituen, planaren garapena eta exekuzioa indartzeko.
 4. Hezkuntza erakundeak inplikatu eta haien hezkuntza lanari babesa ematen diona.
 5. Lehiaketazko eta jolasezko kirolari zuzendua.
 6. Eskola umeen kirol klubak ere Planean sartu behar dira.
 7. Erakargarria eta aisiarako beste eskaintza batzuekin bat egiten dezakeena (hibridazioa).
 8. Eskola umeei astialdia uzten diona.

3.- Adingabeen babesa.

Eskola Adineko Kirolaren Planaren aplikazioaren azpian dagoen beste jarduketa ildo bat proposatu da, alegia, adingabeen kirol jardueraren arauketarena. Jarduketa ildo horren bitartez bermatu egin beharko dira adin txikietan kirol jarduera egiteko bete beharko diren baldintzak.

Azkenik, ardatz estrategiko honetan ageri diren beste jarduketa ildo batzuk zeharkakotzat jotzen dira Plan osorako, eta horregatik guztiak elkartu dira dagokien ardatz estrategikoan.

Planaren exekuzioan parte hartu behar duten begirale eta langileen prestakuntza eta gaikuntza.

Ekintza honen bitartez lortu nahi da kirol jardueretan parte hartzen duten langile guztiek kualifikazio ona izan dezatela, ematen duten ikasgairako eta lan egiten duten egoerarako egokia. Beraz, hauek dira helburuak:

- Prestakuntza plana egitea, eskola adineko kirol jardueretan irakasle aritu nahi duten guztiek bete eta gainditu beharko dutena.
- Prestakuntzari beste gai batzuk gehitzea, adibidez, lehen sorospenak, istripuen ondorengo laguntza, etab.

Ekintza honek bat egin behar luke Planeko beste ildo estrategiko batzuetan planteaturiko gainerako prestakuntza ekintzekin.

Legezko eta osasun arloko estaldura.

Helburua da kirol jarduera honi legezko eta osasun arloko estaldura erabat definitua ematea bere norainokoari eta betekizunei dagokienez. Horrela saihestuko dira halako estaldurarik ez balitz sortuko lirakeen arazoak.

Gaur egungo legeria oinarri, legezko edo bestelako alderdi berriak planteatzeko beharra aztertu behar da, baita Osasun Departamentuarekin akordioak ezarri ere, parte hartzaileentzako laguntza ziurtatze aldera.

Estaldura hori antolatzaileei, begiraleei eta parte hartzaileei aplikatu behar litzaieke. Nafarroako Kirolari buruzko Foru Legean xedatutako erregelamenduzko garapenaren eskutik etorriko da hori guztia.

Egitura eta baliabideak.

Hona ekintzaren helburua: Plana antolatzeko eta burutzeko baliabideak nahikoak izan daitezela Planaren arrakasta bermatzeko alderdi guztietatik (antolaketa, parte hartzea, irakaskuntza, emaitzen azterketa etab.).

Zeregin horiek nork hartzen dituen bere gain, baliabide desberdinak jarri beharko dira.

Kontzientziazioarekin batera, alderdi hau proiektuaren arrakastaren gakoa da.

Akordioak Hezkuntza Departamentuarekin.

Ekintza honek lotura hertsia du azpiegiturekin, eta eskola instalazioen erabilerari dagokio. Uste dugu ezin hobeki landu, definitu eta zehaztutako plan batetik abiatu bakarrak planteatzen ahal direla Hezkuntza Departamentuarekiko akordioak. Jakina, Planak hezkuntza arloko entitate eta erakundeen parte hartzea aurreikusi behar du.

A	ARDATZ ESTRATEGIKOA	JARDUKETA ILDO ESTRATEGIKOAK
1	ESKOLA ADINEKO KIROLA	1.1.- Zabalkundea eta kontzientziazioa. 1.2.- Eskola Adineko Kirolaren Plana. 1.3.- Adingabeen babesak

2. ARDATZ ESTRATEGIKOA: OSASUNERAKO KIROLA.

Hona hemen ardatz honetan proposatzen diren ekintza ildoak:

1. Zabalkundea, kontzientziazioa eta sentikortzea.

Ekintza honen bitartez lortu nahi da kirol mota honetan parte hartzen dutenek gaur egungo eskaintza osoa ezagut dezatela, eta, halaber, jabe daitezela kirol ohitura jakin batzuen beharra dagoela kirol mota horretan aritu ahal izateko. Kirol ohitura horiek kirolarien arazoak (lesioak etab.) saihestea dute helburu, eta lehiaketan parte hartzen den unean ez ezik, beharrezkoak dira lehiaketaren aurretik eta ondoren ere (bizitza osasuntsuaren kontzeptua). Halaber, barnean har litezke elikadurarekin zerikusia duten alderdiak ere (dietak etab.), kirol jarduerarako osasun arloko neurri lagungarriak diren aldetik.

Helburua lortzeko beharrezkotzat jotzen da ondoko ekintza hauek egitea:

- Kirol ohitura eta jardunbide egokiak deskribatzen dituen eta ohitura txarren balizko ondorio eta eraginez ohartarazten duen dokumentazioa (gidak) egitea. Gida horien barnean, osasun azterketei eta osasunaren zaintzari dagozkien kontuak sartuko lirateke, kirol motaren araberrako arau berariazkoekin. Osasun eta Hezkuntza departamentuak bezalako erakundeen inplikazioa eta lankidetzak funtsezkoak dira eremu honetan.

- Kirol mota honetako parte hartzaile guztien artean gida horiek zabaltzea.

- Zabalkunde kanpaina berariazkoak egitea, hiritar guztiei zuzenduak, eta ez jarduera horien hasierako uneei bakarrik lotuak.

- Medikuntza arloko profesionalen artean zabalkundea egitea kirol jarduerak herritarrei dakartzkien onurei buruz.

- Komunikazio-protokoloak ezartzea, mundu guztiak jakin dezan nora jo gorputz jarduera egin nahi badu.

2. Kirolaren ikuspegitik ahulak diren kolektiboentzako kirola.

- Biztanleriaren sektore horiei zuzendutako programa berariazkoak garatzea, haien arazo orokorretarako egokiak (osasun gaiak).

- Eremu publikoetan ekipamenduak ezartzea.

- Jarduera programak garatzea eremu publikoetan aplikatu daitezkeen.

- Arrisku taldeek gorputz jardueretan parte har dezaten sustatzea, haien osasuna hobetzeko eta haien askatasuna handitzeko neurri gisa.

- Osasun zentroak inplikatzera, gorputz jarduera egitea gomendatu diezaieten arriskua duten biztanleei, batik bat, eta biztanle guztiei, oro har.

- Gorputz jarduera egiteko aurki ditzakegun ekintzen, tokien eta programen gida.

Ardatz estrategiko honetan, berriz ere, zeharka eragiten dioten beste hiru ildo gehiago ageri dira:

Jardueren eskaintza.

- Kirol mota honi dagokionez gizartearen eskariak ezagutzea ahalbidetuko duten sistemak ezartzea.

- Jardueren eskaintza antzemandako beharrei egokitzea, irizpide hauek erabiliz, esate baterako: ukitutako biztanle kopurua, geografiako toki guztiak estaltzea, emakumezkoak, etorkinak eta adinekoak barnean hartzea, etab.

Kirol azpiegiturak.

- Erabilera libreko ekipamendu eta instalazioak edukitzea kirol mota honetan aritzeko.

- Kirolean aritzeko hiri eremuak identifikatu eta egokitzea. Jardunbide onen gida.

Kirol jardueran arrisku handiagoa duten taldeetan espezializatutako langileen prestakuntza.

- Arrisku taldeak kirol jardueran gidatzeko orduan erantzukizuna beren gain hartuko duten teknikari espezializatuen prestakuntza behar-beharrezkoa eta ezinbestekoa da. Horretarako, prestakuntzan espezializatutako estamentuek (unibertsitateak), osasun arlokoek eta Nafarroako Kirolaren Institutuak berak behar diren edukiak garatu beharko dituzte kirol jarduera horiek gidatuko dituen langileria egokia bermatzeko.

- Azkenik, beharrezkoa izanen da kirol arloko lanbide jarduerak arautzea helburu izanen duen ekintza bat lantzea. Are beharrezkoagoa kirola bezalako arlo batean, non, titulazioak askotarikoak eta ugariak izan arren, lanbide jarduerak maiz gutxieneko prestakuntza berariazkoak gabeko pertsonen gain uzten baitira.

A	ARDATZ ESTRATEGIKOA	JARDUKETA ILDO ESTRATEGIKOAK
2	OSASUNERAKO KIROLA	2.1.- Zabalkundea eta kontzientziazioa 2.2.- Adinekoen eta arrisku taldeen kirola 2.3.- Kirola eta emakumeak 2.4.- Kirola eta nerabeak 2.5.- Guztientzako kirola

3. ARDATZ ESTRATEGIKOA: LEHIAKETAZKO KIROLA.

Hona hemen ardatz honetan proposatzen diren ekintza ildoak:

1. Federazioen eskumenak garatzea.

Ekintza honen bitartez bultzada eta babes eman nahi da Nafarroako Kirolari buruzko Foru Legean federazioei esleitu zaizkien eskumenak gara daitezen eta federazioek beren gain har ditzaten.

Federazioak lehiaketazko kirolaren alde gehiago inplikatzeari lortu nahi da, horretarako egokienak baitira, kirol mota horretan zuzeneko eragileak diren aldetik, Nafarroako Kirolari buruzko Foru Legean ezarrita dagoen bezala; baina ez dira gutxietsi behar federazio bakoitzak bere kirol modalitatea sustatzeko lanetan dituzten eskumenak.

Ekintza hau garatzeko beharrezkoak izanen dira baldintza hauek:

- Nafarroako Kirolaren Institutuak jarduketa-esparru edo erregelamendu bat ezartzea, federazioek beren gain har ditzaten erantzukizunak. Esparru horrek nolabaiteko lotura ezarri beharko luke erantzukizunak hartzearen eta federazioek jasotzen dituzten laguntzen artean; era berean, laguntzen intentsitatea lotu beharko luke erantzukizunak hartuta lortzen den arrakastarekin.
- Jarduketa-esparru hori federazio guztietara eramatea.
- Esparrua aplikatzea, federazioen erantzukizun hartzeari eta aplikatzeari buruzko datu objektiboen bitartez.
- Jarduketa-esparruaren arrakasta neurtu, aztertu eta ebaluatzea eta behar diren zuzenketak egitea.

2. Kirol errendimendua.

Ekintza honetan hiru lan ildo jorratu behar dira:

1. Gaurko eta geroko beharren diagnostikoa egitea, kirol teknifikazioko zentzuei dagokienez.
2. Kirol teknifikaziorako diru funtsak kontrolatzeko eta gainbegiratzeko sistematika objektiboa ezartzea.
3. Nafarroako Kirol Institutuak modu aktiboan parte hartzea garatu behar diren teknifikazio programetan.

2.1.- Beharren diagnostikoa.

Errendimenduko kirolarien artean egoera desberdinak gertatzen direla kontuan harturik, egokitzat jo da “Errendimenduko kirolarien garapenerako esparru orokorra” prestatzea. Bertan honakoak bereizi behar dira: kirolarien kategoriak, haien emaitzen, dedikazioaren eta kirolarekiko inplikazioaren arabera; Nafarroako Gobernuak kirolariei Nafarroako Kirolaren Institutuaren bitartez eskaintzen dizkien prestazioak; prestazio horien aplikazioak, ezarritako kategorien arabera; eta kirolarien eta teknikarien eskubideak eta betebeharrak.

Zein da helburua? Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Kirolaren Institutuaren bidez eta Nafarroako kirol federazioekin elkarlanean, lehentasunezko helburutzat dauka errendimenduko kirolari deitzen zaien horiei entrenamendurako laguntza sorta eskaintzea, nafar kirolari horiek ahalik eta garapen onena lor dezaten kirolean nahiz pertsona gisa.

2.2.- Funtsak kontrolatu eta gainbegiratzea.

Teknifikazio programetarako ematen diren funts publikoak zertarako erabiltzen diren eta zer nolako emaitzak lortzen diren kontrolatu eta gainbegiratzea da helburua.

Horretarako beharrezkoak dira baldintza hauek:

- Teknifikazio programen planteamenduan helburu argiak eta erabat neurgarriak ezartzea, alegia, planaren bitartez zer lortu nahi den argi zehaztea.

- Kontrol eta gainbegiratze sistema diseinatzea, oinarriztat harturik helburuen betetze mailaren jarraipena eta teknifikazio programaren exekuzioari buruzko txostenak (haren kalitatea, parte hartzea, gorabeherak, onuradunak etab.).

- Baliabide ekonomikoak esleitzeko sistema bat diseinatzea, oinarriztat hartuz, besteak beste, programetarako zehaztutako helburuak eta horien betetze maila.

Funtsak kontrolatu eta gainbegiratze hori beste alderdi batzuei ere aplikatuko zaie; adibidez, federazioek Nafarroako Kirolari buruzko Foru Legean esleitu zaizkien erantzukizunak beren gain hartzeari.

2.3.- Nafarroako Kirolaren Institutuak aktiboki parte hartzea teknifikazio programetan.

Helburua da Nafarroako Kirolaren Institutuak teknifikazio programen edukien definizioan parte har dezan eta esku har dezan, horrela lortuko baita:

- Edukien eta Nafarroako Kirolaren Institutuak gai honetan darabilen politikaren arteko koherentzia bermatzea.

- Aurkezten diren programek aurreko puntuan azaldu diren definizio-baldintzak eta helburuak beteko dituztela bermatzea.

Ekintzaren garapenean, zehazki, teknifikazio programa bat definitu baino lehen informazioa eman behar zaio Nafarroako Kirolaren Institutuari, bertako teknikariak programa zehazteko bileretara joan daitezen eta Nafarroako Kirolaren Institutuaren politikak, gidalerroak eta ildoak programan jasoaraz ditzaten.

3. Goi mailako kirolarien estatutua egitea.

Ekintza honen helburua estatutu bat egitea da, diru laguntza publikoa jaso duten goi mailako kirolariek, jardunean izan edo ez, estatutu horren bidez zenbait konpromiso har ditzaten beren kirol ibilbidean babesa eman dien gizartearekiko.

Batetik, kirolarien koherentzia eta gizatasuna bermatu nahi dira gizarteari begira (eredugarri izatea), eta bestetik gizartean, batez ere gazteenen artean, kirolariek duten “tirakadaz” baliatu, gazteek kirol jardueretan gehiago parte har dezaten lortzeko.

Horrek esan nahi du kirolariak inguruko gizartean duen eginkizuna onartu behar duela, gizarte horrek aurretik eman dizkion laguntzen ordaina hari “itzultzeko”.

Estatutua idaztea da ekintza zehatza. Gorago azpimarratutakoez gain, estatutuak beste alderdi formalago batzuk ere jaso beharko ditu, esate baterako, goi mailako kirolariaren izaeraren ingurukoak.

4. Goi mailako kirol proiektuak.

Gure erkidegoko goi mailako kirol proiektuek erantzuna eman behar diete bi eskakizuni: alde batetik, ahalik eta lehiaketa nazional gehienetan parte hartze egokia lortu behar dute, batik bat ikusleen presentziak hori justifikatzen duen kasuetan, eta bestetik irtenbidea eman behar diete piramide erako kirol proiektu berean elkarrekin ari diren kirolari nafarren multzoari.

Horrekin batera, proiektuok laguntzen edo babes-kontratuen bitartez funts publikoak jasotzen dituztenez, haien bideragarritasun ekonomikoa bermatu beharra dago. Hori funtsezko premisa izanen da haien partaidetzarako eta proposaturiko kirol proiektuaren diseinurako.

Aipamen berezia merezi du goi mailako proiektuari zentzua emanen dioten klub nafarren arteko aliantzak sortzea xede duen ekintzak. Horregatik, halako egituren sorrera sustatu beharko da.

5. Joko garbia, balioak eta dopatzea.

Printzipio horiek, kirola bere osoan kutsatzen dutenez, beti agertu behar dute lehiaketazko kiroleran, gure erkidegoko kirol jarduera egokiaren erakusgarri.

6. Kirol babesletza.

Duela urte batzuetatik hona Nafarroako Gobernuak bere egin ditu arlo honetako bi lan ildo. Batetik, erraztu egin ditu, zergak murriztuz, kirol babesletzan egiten diren ekarpenak, eta bestetik finantzaketa lerro bat ezarri du oihartzun publiko berezikiotzat jotzen diren proiektuentzat, berezkoak dituzten euskarrien bitartez Nafarroaren irudia kanpoan sustatzeko gai diren horientzat.

Beste ardatz estrategiko batzuetan bezalaxe, “lehiaketazko kirolaren” ardatz honetan ere beste jarduketa ildo batzuk azaleratzen dira, bakoitza bere ardatzaren onerako landu beharko direnak baina honako ardatz honetan ere eragina izanen dutenak.

Instalazioak

Ekintza honek zuzeneko lotura du azpiegituren atalekoekin, dauden beharren diagnostikoari eta horien betetze mailari dagokienez.

Hona hemen ekintzaren xehetasunak:

- Azterlana egitea dauden instalazioei eta horien erabilera eta okupazio mailari buruz.
- Lehentasunak zehaztea, instalazioak behar dituzten lehiaketazko kirolei eta horien tipologiari, ezaugarriari eta ekipamenduei dagokienez.
- Gabeziak identifikatzea (gabeziarik baldin bada) instalazioen eskuragarritasunari eta egokitasunari dagokienez.
- Instalazioak egiteko edo/eta egokitzeko plana egitea, bidezkoa bada, lehiaketazko kirolaren beharrei erantzuna emateko.

Entrenatzaile eta epaileen prestakuntza.

Ekintza hau prestakuntza ildo orokorrean sartu beharko da kirolaren esparru guztietan. Lehiaketazko kirolean funtsezkoak diren bi premiari erantzuten die:

- Kirolarien prestakuntza egokia bermatzea, behar bezala prestaturik dauden entrenatzaileen bitartez; kirol gaietan ez ezik, kirolarekin zuzeneko lotura duten hezkuntza gaietan ere adituak diren entrenatzaileak behar dira.
- Lehiaketan zehar epaile lanak egin behar dituztenek “justizia ezartzeko” behar diren prestakuntza eta baliabideak badituztela ziurtatzea. Bestela balioa galduko lukete lehiaketak berak eta lehiaketan parte hartzen dutenen balioek.
- Ekintza hau garatzeko beharrezkoak izanen dira baldintza hauek:
 - edo Prestakuntza plan egokiak antolatzea.
 - edo Interesdunei erraztasunak ematea (sarrera erraza, erraztasun ekonomikoak, joan-etorrietarako laguntzak etab.), haien kopurua handitzeko eta helburua lortzeko, alegia, ongi prestaturiko behar adina entrenatzaile eta epaile izateko.

Legezko eta osasun arloko estaldura.

Helburua da kirol jarduera honi legezko eta osasun arloko estaldura erabat definitua ematea bere norainokoari eta betekizunei dagokienez. Horrela saihestuko dira halako estaldurarik ez balitz sortuko liratekeen arazoak.

Gaur egungo legeria oinarri, legezko edo bestelako alderdi berriak planteatzeko beharra aztertu behar da, baita Osasun Departamentuarekin akordioak ezarri ere, parte hartzaileentzako laguntza ziurtatze aldera.

Antolatzaileei, entrenatzaileei eta parte hartzaileei aplikatu behar litzaieke estaldura hori, eta egokia izan behar luke haietako bakoitzarentzat (entitateak, gizabanakoak etab.), haien ezaugarrien eta eginkizunen arabera.

A	ARDATZ ESTRATEGIKOA	JARDUKETA ILDO ESTRATEGIKOAK
3	LEHIAKETAZKO KIROLA	3.1.- Federazioen eskumenak garatzea 3.2.- Teknikazio programak 3.3.- Goi mailako eta errendimendu handiko kirolarien estatutua 3.4 – Goi mailako kirol proiektuak 3.5.- Joko garbia, balioak eta dopatzea 3.6.- Kirol babesletza

4. ARDATZ ESTRATEGIKOA: KIROL AZPIEGITURAK.

Hona hemen ardatz honetan proposatzen diren ekintza ildoak:

1. Instalazio berriak eraikitzea.

Ekintza ildo honek erantzuna eman beharko dio gure erkidegoan planteatzen diren kirol azpiegiturak sortzeko beharrari. Azpiegitura horiek plangintza zuzen bati erantzun behar diote, eskariari, kokapenari eta eraikuntzaren nahiz mantentze lanen kostu ekonomikoei dagokienez. Baldintza horiek ezinbestekoak dira kirol eraikuntza berrietarako.

Horregatik da beharrezkoa Plan Zuzentzailea egitea. Berak antolatu behar du, ahal den neurrian, Nafarroan gaur egun dauden kirol instalazioen ikuspegia, eta, hainbat parametro aintzat harturik (eskaria, kokapena, kostuak etab.), etorkizuneko beharrak planifikatu behar ditu hurrengo urteetan.

Plan horren sorreraren ondorioz beste ekintza ildo batzuk etorriko dira, lehenetsunez Nafarroako Gobernuak berak landu beharko dituenak; besteak beste, planean bertan azaldutakoa betetzeko erabiliko diren instalazio publikoak (Nafarroako Gobernuarenak edo beste administrazio batzuenak) edo pribatuak sortzeko babes ematea. Errentagarritasun ekonomiko txikikoak izan arren gizartearen ikuspuntutik beharrezkoak diren instalazioen sorrera ere bermatu behar da. Horrelakoak dira tokiko oinarrizko sareko instalazioak edo Hezkuntza Departamentuak hezkuntzaren eremuan sustatzen ahal dituenak.

2. Instalazioak mantendu eta hobetzea: kirol instalazioak kualifikatzeko metodoa.

Instalazio bakoitzaren kualifikazio objektiboa (sailkapena) ahalbidetuko duen erreferentzia edo eredu bat edukitzea, horra ekintza honen helburua.

Kirol instalazio guztiei aplikatzeko moduko sistema izan behar luke. Etorkizunerako laguntzak ere instalazioaren kualifikazio mailak baldintzatuko ditu. Eredu honek instalazio

guztietan izan behar du aplikagarri, eta haien berezitasunei egokitu behar zaie. Hortaz, beharrezkoa izan liteke zenbait eredu garatzea.

Hona hemen eredu honek landuko lituzkeen alderdiak:

- Legea betetzea aplikazio eremu guztietan (segurtasuna, osasungarritasuna, ingurumena, administrazioa etab.). Horretarako beharrezkoa izanen da instalazioaren autokontrola bermatuko duen sistema sortzea aplikazio eremu guztietan.
- Instalazioaren dinamizatzeko maila (nola planifikatzen eta egiten diren jarduerak), eta biztanleriaren sektore guztientzako (haurrak, adinekoak, ezgaitasuna dutenak, etab.) eskuragarritasun maila.
 - Erabilera eta okupazio maila.
 - Iraunkortasuna.
 - Mantentzea.
 - Konponketa.
 - Kudeatzeko tresna informatikoak.
 - Informazioaren eskuragarritasuna erabiltzaileentzat eta administrazioentzat.
 - Energia aurrezteak.
 - Irisgarritasuna ezgaitasunak dituzten pertsonentzat.
 - Ereduak berak barnean eduki behar ditu eraginkortasunaren eta eragimenaren jarraipen eta kontrolerako tresnak, ondokoei aplikatzeko:

edo Instalazioei: ekintzen auditoria eta jarraipena egin behar da, aurkitzen diren akatsak konpontzeko. Hobekuntzen jarraipena ere egin behar da.

edo Ereduari berari. Ereduaren ezarpena eraginkorra eta instalazioetarako egokia ote den aztertzeko tresnak eta adierazleak behar dira.

Aurrekoaz gain, ondokoak garatu behar dira ereduaren ezartzeko:

- Instalazioetan egindako ikusketen erregistrarako, azterketarako eta jarraipenerako tresna informatikoak.
- Parte hartzaile guztien prestakuntza.
- Instalazioak ikuskatuko dituzten entitate eta langileen existentzia eta homologazioa.

3. Instalazioen erabilera.

Gaur egungo instalazioen erabilera sustatzea da ekintza honen helburua.

Horretarako ekintza zehatzak definitu behar dira, instalazioen erabilera areagotuko dutenak, bai erabilgarri dauden bitarteko eta ekipamenduei dagokienez, bai erabiltzeko ordutegiari dagokienez.

Kontua da, azken batean, instalazioetan eginda dauden inbertsioak ahalik eta ongien baliatzea, ondoko hobekuntzak lortzeko:

- Okupazioa handitzea haran-orduetan.
- Mantentze lanak erraztu eta bideragarritasuna areagotzea.

- Jende askok, bazkide izan edo ez, erabiliko dituen jarduerak eranstea.
- Instalazioak erabiltzen dituzten pertsonen kopurua handitzea.
- Instalazioetako ekipamenduak egokiak izatea inguruko gizartearen eskarietarako.
- Beste udalerrri edo kirol modalitate batzuetako erabiltzaileek ere instalazioak gehiago erabiltzea.

4. Eliteko kirolerarako instalazioak.

Gaur egun eliteko kirolerako instalazioen erreferentetzat jotzen dira Larrabide Estadioa (banakako kirolerarako, funtsean: atletismoa, judoa, karatea, taekwondo eta beste batzuk) eta lehen mailako taldeak dituzten herrietako udal kiroldegia, baita Unibertsitateko Kiroldegia ere.

Alabaina, beharren azterketa eginen balitz, bete behar diren premiak zehaztu litezke. Besteak beste, beharrezkoa litzateke igerilekuan egiten diren kirolak hobetzea, gaur egun igerilariak instalazio horietako erabiltzaile eta bazkideekin partekatu behar baitute lekua, horrek dakartzan eragozpenekin. Horregatik proposatu da Larrabide Estadioaren inguruan kokatzea gure erkidegoko errendimendu handiko kirolaren gune neuralgikoa, abonatuak udan bakarrik erabiltzen baitute instalazio hori. Hasiera batean proposatuko litzateke inguru horretan kokatzea, lehendik badiren ekipamenduen ondoan, kirolarien egoitzaren erreforma, eta gaur egun estali gabe dagoen 25 metroko igerilekua estaltzea, eta harmaila estaliak/estalgabeak eraberritzea, gimnasioa, atletismo modulu estalia eta abar barnean hartuko lituzkeen modulua eginez.

Egiaztatu diren gainerako gabeziarako (gimnastika, arku-tiroa, ping-ponga eta beste batzuk) beharrezkoa da ekintza ildo egoki bat lantzea, Administrazioak akordioak lortu ahal ditzan beste kirol entitate batzuekin haien kirol instalazioak erabiltzeko, dela eliteko taldeentzat, dela kirol modalitate jakin bat ezartzeko herri edo instalazio batean.

Azterlana egiteko, ondokoak zehaztu beharko dira aurretiaz:

- Zein kirolari emanen zaion arreta elite mailan (guztiei, batzuei, etab.).
- Gaur egungo instalazioen ezaugarriak eta eliteko kirol bakoitzerako egokitasuna.
- Gaur egungo instalazioen erabilera.
- Eliteko kirolerako instalazio baten beharra neurtzeko irizpide objektiboak (kirolarien kopurua, kirolarien maila, etab.).

Azterlanaren emaitza Plan Zuzentzailearen atal izanen da, eta argi adierazi beharko du zeren beharra dagoen eta, hala dagokionean, eraiki edo/eta egokitu behar diren instalazioen ezaugarriak eta tipologia.

5. Naturguneak instalazio gisa garatzea.

Ekintza honen helburua da Nafarroak dituen natur baliabideak erabiltzea kirol instalazio gisa baliatzeko.

Ekintza hau burutzeko beharrezkotzat jotzen dira baldintza hauek:

- Naturan egin daitezkeen kirol jarduerak identifikatzea.
- Biztanleriaren zein sektoreri zuzendu behar zaizkion zehaztea.
- Aplikatu beharreko legezko baldintzak zehaztea (ingurumenaren gaineko eragina, erabileraren segurtasuna, erabiltzaileen segurtasuna, etab.).
- Naturguneen garapena planifikatzea (lehentasunak ezartzea).

- Gizartean zabalkundea egitea.
6. Instalazio berekiak mantentzeko edo/eta murrizteko edo/eta handitzeko plana egitea:

Jarduketa ildo honetan beharrezkoa izanen da denboran planifikatzea Nafarroako Gobernuarenak diren kirol instalazioetan planteatzen ahal diren beharrak eta konponbideak.

- Larrabide Estadioa: igerilekua estaltzeko eta harmailak entrenamendurako eta atletismoaren teknifikaziorako modulu gisa eraberritzeko aukera.

- Larrabide kirol egoitza: zaharberrikuntza osoa
- C.P. Guelbenzu: eraikitzea/eraberritzea, eta kudeaketa mota aztertzea
- Kirolaren Etxea: kirol federazioak erabilera anitzeko kiroldegira aldatzeko aukera.
- Nafarroako Kirolaren Institutuaren bulegoak: lekuz aldatzeko aukera

7. Nafarroako Erabilera Anitzeko Kiroldegia eraikitzea:

- Eliteko kirol lehiaketetarako tokiak: pista nagusia, eta pista osagarria frontoiarekin.
- Kirol ikuskizunetarako tokiak
- Kirol federazioentzako tokia
- Instalaziorik gabeko federazioak kokatzeko aukera
- Gimnastika
- Arku-tiroa
- Etab.

Berriz ere, ekintza ardatz honetan txertaturik dagoen beste ekintza ildo batek Planaren planteamendu osoan azkenean izanen duen eragina zeharka tratatu behar da:

Prestakuntza.

Azpiegituren mailan, baina prestakuntzaren zehar-arloan sarturik, batez ere bide honetatik jo behar litzateke:

- Instalazioen kudeatzaileen prestakuntza.
- Instalazioak mantentzeko langileen prestakuntza.
- Eraikuntzako prestakuntza (arkitektoak, diseinatzaileak etab.).

Horretarako, arlo horietako ikastaro berariazkoak antolatu beharko dira eta, gure iritziz, azterketak egin beharko dira prestakuntzaren aprobetxamendua egiaztatzeko. Egiaztatze hori eginkizunetan aritzeko sarbide izanen da.

A	ARDATZ ESTRATEGIKOA	JARDUKETA ILDO ESTRATEGIKOAK
4	KIROL AZPIEGITURAK	4.1.- Instalazio berriak
		4.2.- Instalazioak mantendu eta hobetzea
		4.3.- Instalazioak ahalik ongien erabiltzea
		4.4.- Eliteko kirolerako instalazioak
		4.5.- Naturguneak instalazio gisa
		4.6.- Zentro berekiak
		4.7.- Erabilera Anitzeko Kiroldegia

5. ARDATZ ESTRATEGIKOA: PRESTAKUNTZA

Zeharkakotasuna da ardatz honen ezaugarri nagusia. Ardatzak banan-banan azaltzean aipatu dugunez, haietan guztietan oso kontu garrantzitsuak azaldu dira kasuan kasuko ardatzaren garapenarekin zuzeneko zerikusia duten eragileek behar duten prestakuntzaren inguruan. Horregatik, laburpen gisa, aurretik deskribatu ez diren berrikuntzarik interesgarrienak jasoko ditugu atal honetan. Hona hemen ardatz honetan proposatzen diren ekintza ildoak:

1.- Prestakuntza sistema.

Ekintza hau burutu ahal izateko beharrezkoak dira ondoko ekintzak:

- Lehendabizi, azpimarratu behar da prestakuntza akademiko arautua Hezkuntza Departamentuaren eskumenekoa dela. Horrekin batera, ordea, bada jarduketa esparru honetan hezkuntza ez-formal bat, eskari asko betetzeko gauza izan daitekeena, lantaldeen saioetan agerian jarri zenez. Hori guztia gogoan, Hezkuntza Departamentuak baimendutako ikastetxe bat sortzea proposatzen da. Ikastetxe horrek, modu paraleloan, kirol modalitate guztietako kirol teknikarien titulazioak lortzeko hezkuntza behar formalei erantzunen lieke. Hezkuntza erakundeekin (unibertsitateekin) hitzarmenak eginda, titulazioak adosten ahal dira osasunerako kirolaren eta arrisku taldeen arloan, bai eta kirol esparruan prestakuntza beharrak dituzten kontu ez-formal guztiak ere (instalazioen kudeatzaileak, segurtasuna eta osasungarritasuna kirol jardueran, kirol hastapenetako irakasleak etab.).

- Prestakuntza plan akademikoak egitea (edukiak eta egitura) kirolarekin zerikusia duten maila, kolektibo eta esparru guztietarako.

- Entrenatzaileei, jardueretako begiraleei, epailei eta boluntarioei aplikatzen ahal zaie.

- Behar adina jakintza-arlo hartu behar dituzte barnean (kirolaren teknikak, larrialdiak, istripuak, legezko alderdiak, antolamenduzkoak, etab.).

- Esparru guztietan izan behar du eragina, ez kirol esparruan hertsiki-hertsiki; hau da, aintzat hartu behar ditu instalazioak diseinatzen dituzten arkitektoak, dietistak, instalazioen kudeatzaileak, mantentze lanetako langileak etab.

- Lortu beharreko gutxieneko maila zehaztu behar du, egin beharreko jardueraren edo entrenamenduaren arabera.

- Azterketak ere beharrezkoak dira, ikasgaiak ikasten direla bermatzeko.

- Kontuan hartu behar ditu etengabeko prestakuntza eta birziklapena.
- Irakasleak gainbegiratzea eta jarraipena egitea ahalbidetu behar du.
- Edukien eguneratzea eta egokitasuna bermatu behar dira.
- Entrenatzaile eta begiraleek prestakuntza planean ezarrita dagoen gutxieneko maila izatea garrantzitsua eta nahitaezkoa dela zabaltzea eta gizartea horretaz ohartaraztea.
- Interesdunei prestakuntzarako bideak erraztea (ordutegiak, ikastaroen egunak, joan-etorriak, prestakuntzari aplikatutako teknologia berriak etab.).
- Betetze maila gainbegiratzea, hots, prestakuntza ematen ari diren guztiak horretarako gaiturik dauden begiratzea.
- Hezkuntza eta Osasun departamentuak plan honen garapenean inplikatzeko, bai edukien eta metodologiaren ekarpen gisa eta bai lehen urrats gisa, horrela prestatutako profesionalak beren hezkuntza planetan sartzea onar dezaten.

Ekintza hau, zehazki, aurrean azaldutako ekintzak garatzean datza. Hori guztia gaur egungo lege esparruaren barnean egin behar da, eta Nafarroak hezkuntza, kirol eta osasun arloetan dituen eskumenak ahalik eta gehien baliatuz.

A	ARDATZ ESTRATEGIKOA	JARDUKETA ILDO ESTRATEGIKOAK
5	PRESTAKUNTZA	5.1.- Nafarroako kirol prestakuntza egituratzea
		5.2.- Lehiaketazko kirola
		5.3.- Jostetarako eta osasunerako kirola
		5.4.- Kirol kudeatzaileen eta mantentze lanetako langileen prestakuntza
		5.5.- Kirol hastapenetako irakasleen prestakuntza

6. ARDATZ ESTRATEGIKOA: ERAKUNDE HARREMANAK

Lerro hauetan zehar aipatu izan dugu beharrezkoa dela proposaturiko planen garapenean beste erakunde batzuk ere lankide izatea, kirol arloko eskumenak dituen eta Plan hau sustatu duen Nafarroako Kirolaren Institutuaz gainera. Horregatik beharrezkoa da, berriz ere zeharka, Plan Estrategiko honen funtzionamendua ahalik onena izan dadin topaguneak eta lankidetzarako guneak ezinbestez adostu behar dituzten erakunde guztiak elkartuko dituen ekintza ardatz bat planteatzea.

Lau dira proposaturiko ildoak, kirol arloan lankide diren erakundeen ezaugarrien arabera:

- Gobernuko departamentuak (Hezkuntza, Osasuna, Turismoa, Ingurumena etab.) eta beste erakunde batzuk (autonomia erkidegoak, Kirol Kontseilu Gorena, Espainiako Batzorde Olinpiarra, etab.).
- Toki entitateak.
- Kirol entitateak, hala nola klubak, elkarteak, kirol federazioak eta beste batzuk.
- Kirol arloko boluntarioak

Gainera, Nafarroako Kirolaren Kontseilu sortu berriari eginkizun aktiboa eman nahi izan zaio Plan Estrategiko honetan, haren inguruan eratuko baitira Plana bera ebaluatzeko eta jarraipena egiteko mekanismoak. Horretarako, proposaturiko ekintzen artean, zenbait lan batzorde sortu nahi dira, planteatutako ardatz estrategikoetan sakondu dezaten, bai eta sare moduko kudeaketa sistema ere, haren kideek jarraipen erraza egin ahal izan dezaten garatu beharreko gaien inguruan eta Plana ebaluatzeko sistema berritzaileak sortu ahal izan ditzaten.

Seigarren ekintza lerroa Administrazioaren beraren modernizazioaren esparruan dago planteatuta. Horrek beharrezkoa egiten du ezagutza kudeatzeko sistema bat sortzea, herritar eta entitate guztien eskura jarriko duena kirol gaietara buruz erabilgarri dagoen informazioa.

Hemen jaso dugu, azkenik, Nafarroako Kirolari buruzko Foru Legean bertan planteaturiko gai batzuk erregelamenduz garatzeko beharra. Gai horiek oraindik garatu gabe daude eta, zalantza izpirik gabe, inplikaturiko kirol eragileak gaur egun arazo batzuetarako eskatzen ari diren konponbideak ekarriko dituzte.

A	ARDATZ ESTRATEGIKOA	JARDUKETA ILDO ESTRATEGIKOAK
6	ERAKUNDE HARREMANAK	6.1.- Osasun, Hezkuntza eta Turismo departamentuekin 6.2.- Toki entitateekin 6.3.- Klub eta elkarteekin 6.4.- Kirol boluntariora 6.5.- Nafarroako Kirolaren Kontseilua 6.6.- Eragileen arteko komunikazioa/informazioa 6.7.- Kirolari buruzko Legea garatzea

7. ARDATZ ESTRATEGIKOA: IKERKETA ETA BERRIKUNTZA

Plan honetan landu beharreko azken ardatz estrategikoa “ikerketa eta berrikuntza” izeneko da, eta bi jarduketa lerro ditu, ongi bereiziak.

1. Ikerketa.

Hemen kokatzen dira kirol arloko ikerketaren inguruko ekintzak, hala kirol errendimenduaren gainekoak nola osasunarentzako onuren gainekoak, Ikerketa Zentroan betidanik egiten direnak, hain zuzen ere. Baita kirolaren alor aldakor honetan beste toki batzuetan egiten ari denari aldi behin erreparatuz eta begiraturaz burutzen den lan ildo ere.

2. Berrikuntza.

